

ttipi-ttapa



BERAKO XIII. MENDI EGUNA LARUNBATEAN

2007an Taillon mendian zendu ziren Xabier Zubieta, Luis Mari Pikabea eta Xabier Saralegi gogoan, egun osoko egitaraua prestatu dute larunbat honetan, urtarrilak 11, Beran. Zoritarreko egun hartan mendian bikotekidea eta aita galdu zuten Ana Larretxea eta Lorea Zubietarekin ere mintzatu da TTIPI-TTAPA. / 10

Nobela Beltzaren Astea Baztanen

Ilbeltzaren 20tik 26ra (H)ilbeltza literatura beltzaren hitzordua antolatu dute Baztanen. Hainbat liburu aurkeztuko dituzte. / 33

SINADURAK



GARAZI
ZABALETA
URKIOLA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



IZASKUN
REKARTE
BENGOETXEA / 4



ELURTE
IRIARTE
BAÑEZ / 4

ttipi txartela

Jon Rekondo Oñozola
72673152-4
2021/04
3172

ZOZKETA / 52



«Aizkorak segida
izateko apustuak
beharrezkoak dira»

Jon Rekondo
Leitzako
aizkolaria. / 8



Inauteri hotsa
sumatzen hasia da:
Anizen, Eratsunen,
Elgorriagan...



GURE OPARIRIK ONENA: ZURE ENTZUMENA OSASUNTSU IZATEA

Urte berria hasi da eta zurekin akordatu gara.

2020an ere zure zaintzaz arduratuko gara. Horregatik, hainbat opari egin nahi dizkizugu: **DOAKO entzumen-azterketa oso-osoa eta audifono ikusezinen proba DOAN.**

Urtarrilean ere **DOAKO AZTERKETA OSO-OSOA** egin ahal izateko, aurrez zita eskatu beharko duzu **943 63 33 05** telefono-zenbakira deituta (astelehenetik ostiralera 09:00-13:00 eta 15:30-19:30 ordutegian).



Entzumenaren balorazio osoa egi-teaz gain, **AUDIFONOEN PROBA** egitea oparituko dizugu Auditek-en **DOAN.**

Entzumenaren
balorazio osoa eta
DOAKO A

Bideotaskopia eta inpedantziometria bidez

Audifono ikusezinen
proba
DOAN

943 633 305

Colon Pasealekua, 27, Irun
(Irungo turismo-bulegoaren ondoan)

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan
CIESe **Nafarroa Garaiko
mendialdean** hartu duen
111 udalerrien eremuan ere.



32.000 irakurle



Diario de Noticias
12.000 irakurle

Diario de Navarra
10.000 irakurle

Bertze batzuk
7.000 irakurle

Gara
5.000 irakurle

Berria
3.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA




%54,6
EMAKUMEAK




%45,4
GIZONAK

ADINAREN ARABERA



IKASKETA MAILAREN ARABERA



DATU ITURRIA: CIES, 2019ko metatuak

SINADURA: Ttipi-Ttapa



NIRE TXANDA

GARAZI ZABALETA URKIOLA

Turroia eta amatasuna

Badira hilabete zenbait dendetako apalategiak turroiz eta polboroiz betetzen hasi zirela: almendraduna, txokolate eta arroz ez bete, Xixoiko betikoa... «Tira, eta zer ikusteko du turroiak amatasunarekin?» galdetuko duzue. Eta nik ere ez dakit zergatik eta nondik nora, baina egia da Eguberrietako familia otorduetan, turroiaren bueltan, inoiz baino gehiago ateratzen dela amatasunarekin gaia: «Hurrena zuri tokatzen zaizu haur bat ekartzea, eh?» edo «30 urte honezkero eta bikoterik ez?». Guztia turroia murtxi-katu bitartean, *kras kras*. Zer axola dio urteetan

elkarren berri eduki ez izanak, edo galdera bota dizun familiakideak zure bizitzari buruz ezer gutxi jakiteak? Nonbait, zilegitasun osoa du gisa horretako galderekin insistitzeko. Eta, nonbait, pertsonon —eta areago emakumeon— ibilbide naturala da adin horren bueltan ama izaten pentsatzen hastea... ezta? Bada, uste dut geroztik eta gehiago garelako Eguberrietan turroia kontrako ezta-eratik joaten zaigunak.

**«TURROIA GERO ETA
GEHIAGORI JOATEN
ZAIGU KONTRAKO
EZTARRITIK»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Isiltasunaren soinuak

Zaldi-ferrek asfalto gainean egindako soinuak urratu zuen gau hotzaren isiltasuna eta musika-bandak jotako lehen inauteridoinupean zakozarrek botatuko oihuak, fraindarren soinuariaren musikarekin emandako erratz-bizkarrekoak eta txistularien agindupean zubi gainean zabalduetako banderaren arrano-hegalkadaren ziztua ekarri zituen oihartzunak.

NABARMENTZEKOAK



**ERNESTO
PRAT**
LEKAROTZKO IDAZLEA



**NEREA
SORONDO**
BERAKO AIZKOLARIA

Ernesto Prat lekaroztarrak irabazi du Arratiako Zertu Kultur Elkarteak Igorreko Udalaren laguntzarekin antolatutako Kalenturak ipuin erotikoen lehiaketa. 600 euro jaso ditu.

Emakume aizkolarien IV. Urrezko Kopa irabazi zuen abenduaren 21ean. Lau aizkolariren artean bera ian zen bizkorrena; 36 ontzako bortz enbor 10.10eko denboran moztu zituen.

ATZERA BEGIRA



2010-01-07 · TIPI-TTAPA · 509 zk.

Leitzako Kaxkabeltza elkartearen sorrera

Herriko merkataritza sustatzeko asmoz, duela hamar urte Kaxkabeltza elkartea sortu zuten Leitzako 38 merkatar, ostalari eta zerbitzu enpresek. Argi mintzatu ziren 2009an TIPI-TTAPAREKIN: «Gure herria bizirik mantentzeko ezinbestekoak garelako uste dugu. Elkartearen gaudenon artean, ehun lanpostu inguru daude. Baina gu bizirik mantentzeko bezeroak behar ditugu. Konfiantzako zerbitzua eta hurbiltasuna baloratu beharko lirateke». Horrekin batera, «denen artean daukaguna mantendu eta aurrera begira negozio berriak irekitzeko bermea ematearen» garrantziaz ere aritu ziren orduko Kaxkabeltza elkartearen zuzendaritzakoak. Ilusioz eta gogotsu hasitako ibilbideak hamar urte egin ditu dagoeneko.



Argitaratzailea
TIPI-TTAPA Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus



Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutz Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urroz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Pablo Irastortza, Mattin Larraide,
Juan Mari Barriola, Inigo Imaz,
Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebrea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklaren elkartea

2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi
eta Malerreka 38€
Leitza 26€
Hego Euskal Herria 44€
Iparr Euskal Herria, Europa 83€
Amerika eta Australia 130€





KOLABORAZIOAK

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Euskararen alde egon edo izan

Euskararen egunetik hilabetera, beharbada urte hasmenta hau momentu ona da hausnarketarako. 2019ko abenduaren 3a pasatu zen baina etorriko da aurtengoa eta ezin dugu berriz ere hauts bihurtzen diren adierazpenekin, ekitaldi sinbolikoekin eta euskara goraipatze hutsarekin eguna bete eta aitzina egin. Abenduaren 3aren inguruan aditu, solastatu eta leitu dudaren artean argi dut zein den egin beharrekoa: euskararen eguna aldarrikapen eguna bilakatu eta ez ospatze egunarekin konformatu. Zapalketak ez dira ospatzen eta guk ez dugu deus ospatzekorik. Zoritzarrez.

Bertze edozein zapalketarekin funtzionatzen dugun gisan aritu beharko genuke: emakumeen egunean ez dugu ospatzen, aldarrikatzen dugu; langileen egunean edo harrotasunaren egunean egiten den bezala. Akaso horixe da arazoa, zapalketa ez dugula ikusten. Normalizatua dugu eta iruditzen zaigu gazteleraz solastatzera behartzen gaituzten guzietan bertzearen eskubideak errespetatzen ditugula. Horixe da zapaldua izatearen sintoma bat: gu gaizki ari garela sineste, normala dela gazteleraz egin behar hori ulertzen ez gaituen artean.

Eta normalizaziorat ailegatu bagara, zapalketa hori identifikatzen ez dugulako izanen da segur aski. Egin dezagun

«EUSKARAREN ALDE EGOTEAREKIN EZ DA ASKI, IZAN ETA ARITU BEHAR DUGU»

sak aise presentzia eta prestigio handiagoa dute euskarak baino. Horrek eramaten gaitu eremu eta inguru aunitzetan gure hizkuntzan aritzeko zailtasunak eta maiz ezintasunak izaterat (medikuak, administrazioa, kultura adierazpenak, formakuntza...) eta horrekin batean sinestera euskarak ez duela balio gauza guzi horietarako. «Denek erdaraz baldin badakigu, zertarako euskaraz aritu?».

Euskara identitatearen ardatz inportanteenetako bat da eta erabili ezin dugun bakoitzean gure identitatea eta mundua ulertzeko manera guttiesten dugu, altxatzen dugu, desagerrazten dugu. Hori nahikoa beharko luke izan gure aldarrikapenak mahai gainean paratzeko: euskaraz bizi nahi dut. Edo agian pausu bat gehiago: euskaraz bizi naiz. Hizkuntzari eta beraz identitateari balioa eman.

Eta hortxe proposamena aurtengo euskararen egunerako: modu aktiboan aritzeko indarra hartzeko aldarrikapen eguna bihurtu. Ez da aski egotearekin, izan eta aritu behar dugu euskararen alde. Eta solastatze hutsarekin erdia baino gehiago egina dugu. Has gaitetzen bada.



IZASKUN REKARTE BENGOTXEA

Estrasburgoren mugak

Duela urtebete, 2018ko otsailaren 13an, Estrasburgoko Auzitegiak epai baten bitartez Espainia beste behin ere kondenatu zuen, Portu eta Sarasola kasuaren harira.

Epaia ezohikoa izan zen, Estrasburgok adierazi zuen Espainiako agenteek tratatu txarrak eta ez-gizatiarrak eman zizkietela atxilotutakoei. Aurreko beste kasuetan Espainiako autoritateei behar bezala ez ikertzea leporatu izan zaie. Kontuan eduki beharra dago tortura definizioz ezkutuko lekutan gertatzen dela, lekukorik gabe, atxilotuak guztiz polizien eskuetan daudela. Horretan oinarrituta, Estrasburgok obligazio prozesala ezartzen die estatuko ordezkariak: haiei dagokie gertatu denaren bertsio koherentea eta sinesgarria ematea. Haiek ikertu behar dute salaketak daudenean, haiek bakarrik argitu dezaketelako. Beste hitzetan: ikerketarik ez badago, ezingo da tortura dagoenik frogatu (Espainia, 2018).

Portu eta Sarasolaren kasuan denok ikusi genituen tortura eta tratatu txarren aztarnak. Atxilotu eta berehala ospitalean bukatu baitzuten bi lesakarak, kolpatuak goitik behera, saiheutsak eta guzti apurturik. Susmo horien aurrean Estrasburgok orain esan du, batetik, tortura-debekua alderdi prozesalean urratu dela behar bezala ikertu ez delako;

«ESPAINIA NOIZ AUSARTUKO DA TORTURAK BEHAR BEZALA IKERTZEN?»

Zibil guztiak absolutu zituen. Gertakizun honetan bi bertsio daude; atxilotuek torturatuak izan zirela zioten, alde batetik, eta, bestetik guardia zibilek ezetz, atxilotetaren aurreko erresistentziaren ondorioa besterik ez zela. Horren aurrean, auzi medikuen txostenak erabakigarriak izan dira (Gamiz, Moñux, Ormazabal eta Salinas, 2018).

Demokrazia, bakea eta justizia bermatzeko epaile eta administrazio sendoa behar dira. Baina Espainiako Justizia noiz ausartuko da tortura kasuak behar bezala ikertzen? Hau ikertu bitartean, Estrasburgo dugu itxaropen bakarra. Hala ere, Estrasburgok ere bere mugak ditu: berandu baitator. Baina, behintzat, injustizia egin eta ukatu ondoren, lezioa ematen du: ez da gutxi.

11 GALDERA LABUR

JON IGOA MINDEGIA ERATSUNDARRA

«Herritarrek inauteriez gozatzeko lan handia egiten dute»

Aurkeztu zure burua.

21 urteko gazte eratsundarra.

Zer egiten duzu egunerokoan?

Pasa den ikasturtean bukatu nituen diseinu grafikoko ikasketak eta orain lan bila nabil, han-hemengo grafiketan.

Zein dira zure zaletasunak?

Denbora dudanean mendira joatea edo lagunekin egotea gustatzen zait. Momentuaren arabera, haiekin bildu eta talde osoak gustuko dituen planez gozatzen dut edo, bestela, mendira joaten naiz. Udan, eguraldi onarekin, zelaietan animaliak ikusiz ibiltzea ederra da.

Bestazalea al zara?

Ez gehiegi. Aukeran, lagunekin eguneko planak egitea nahiago izaten dut.

Nola bizi dituzu inauteriak?


Azken urteetan, ikasketak di-rela eta, inauterietan ez naiz atera baina atera izan naizetan moztarrotu eta herriko jendearekin etxez etxe ibili izan naiz, bertsoak entzuten. Aurten, momentua ailegatzen denean ikusiko da...

Inauterietako momentu politena?

Etxez etxeko buelta horretan, nire etxera ailegatu eta atautxiri bertso bat edo bi eskaintzen ziotenean asko gozatzen nuen. Bera bertsoan gustura aritzen zenez, niretzat pozgarria zen hori ikustea.

Nolako giroa izaten da inauterietan herrian?

Ona, herritar gehienek gogotsu hartzen dituzte. Biztanle gutxi izanagatik, eginahalak



egiten dira inauteriak ongi pasatu ahal izateko eta hori antzematen da...

Zer du Eratsunek beste herriek ez dutena?

Inguru polita eta lasaitasun handia.

Zer falta du?

Gazteak herrian gelditzea. Herri txikia izanik, askok inguruko herrietara jotzen dute. Orain arteko joera ikusita, hemendik urte batzuetara nabarmenki hustuta egonen

da. Herritik kanpo bizi direnetzako asteburu-pasa etortzeko herria izanen da...

Zerk egiten zaitu zoriontsu?

Kezkarik gabeko bizimodua izateak eta gustatzen zaidana egiteak. Arazoak saihestea edo horiei aurre egitea eta lagun onak zein familia hurbil izatea nahikoa dut.

Zer eskatu diozu 2020ari?

Betikoa: osasuna, lana eta zorte ona familiarentzat eta niretzat.

Merkealdia

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Bigarren mailakoak gara

PATXI TELLETXEA EZKURRA

N-121A ERREPIDEA GERO ETA BELDUR HANDIAGOZ ERABILTZEN DUENA

Bai, bigarren mailakoak gara. Baztan-Bidasoko biztanleak eta N-121A errepidea hartzen duten haranetakoak. Nire ustez, ez dago arrazoi sobera eman beharrik. TTIPI-TTAPA irakurtzen duzuenok ongi baino hobeki dakizue. Jende guztia jakinaren ganean dago, urteak daramatzagu istripuak, ezbeharrek, hildakoak, zaurituak, lekualdatzeak, ospitaleratzak... jasaten. Hagitz koleratuak gaude, aski da, aski denez.

Azken hiru urteetan, 345 istripu eta 13 hildako izan ditugu Nafarroako errepide zati honetan. Hain zuzen ere Nafarroako iparraldean bizi garen bigarren mailako nafar herritarrok erabiltzen duguna. Baina, hori bai, zergak eta gainerako bide-azpiegituren itzalpeko kanonak ederki ordaintzen ditugu, gainerako nafarrek bezala, bai horixe!

Asko gogoratzen naiz Perurena anaiez, Alberto eta Peio anaiez, 2014an Beran hil ziren lagun eta lankide neketsuez; gogoratzen naiz Klara eta Emiliatz, Azpilkuetako Larroingoborda baserrikoek, duela aste batzuk hil ziren ama eta alaba. Baina, harrigarria bada ere: 13 pertsonak galdu dute bizitza azken urteotan: hiru 2019an, bost 2018an eta beste bost 2017an. Nola ordaintzen da bizitza horien kostua? Nola konpentsatzen da? Zein itzalpeko bidesarirekin?

UPNko gobernuak zer egin dute urte luze hauetan? Eta Geroa Bairen gobernuak? Luis Zaraluki eta Manu Ayerdik zer egin dute? Zein da beren erantzukizuna? Zergatik ez diete kasurik egin urtez urte inguruko alkateei, inplikazio eta aurrekontu handiagoa eskatutakoan?

Iruñeko eta Iruñerriko politikariek belarriluzeak dituzte Nafarroako herrietako biztanleek eguneroko bizitzan dituzten zailtasunei buruz hitz egiten dugunean, N-121A iparraldeko bailarako herrietakoekin bederen. Haiek Iruñerrian bizi dira eta dena eskura dute, lanera, ospitaleetara, Iruñerriko garraio

erosoan zentrora joateko. Eta gogoratzen al dira herrietako biztanleen gorabeherak? Ba al dakite herriekin osatutako Nafarroa aberatsagoa eta anitzagoa dela? Badakite landa-ingurunea eta gure mendi eta haranak zaindu behar direla?

A zer zortea Lizarraldean, Zangotzaldean, Sakanaldean, Leitzaldean eta Nafarroako hegoaldean bizi diren nafar herritarrena: bide azkar eta seguruak baitituzte, Iruñera erraz eta azkar iristen dira! Zorte handia, nazioarteko kamioi-traffic izugarria jasan gabe, autoa lasai har dezakete Iruñera iristeko! Abiadura bizian doazen kamioiak, prekarioan kontratatutako pertsonak gidatuak, soldata txikikoak eta ibilbide doi-doiak dituztenak sufritu gabe.

Hori da errealitatea, ez dago besterik. Aurtengo Eguberrietan, Clara eta Emilia ez dira beren baserrian egon Eguberrietako *Hator-hator* kantatzen, beste urte batzuetan bezala. Familiak, beste asko bezala, haien hutsunea min handiz bizitu du. Bien bitartean, Nafarroako Gobernuaren bulegoetan bide-zati horren espedienteak motel-motel, oso motel jarraitzen du... Oraingo politikariek -aitzinekoak bezalaxe- gelditu gabe hitz eta pitz ari diren bitartean, deus handirik konpondu gabe.

Atzerriko partida

HARITZ BEREAU MUTUBERRIA

Iruzur honetan parte hartzeak konplize bihurtzen al gaitu?

Hauteskunde garaian leku aunitzetan gertatu dira bozkaren inguruko eztabaidak, bozkatu ala ez, asimilazioa ote den espainiar hauteskundeeen bozkatzeara, abstentzio 'aktiboa' ote den alternatiba... Bakoitzak bere iritzia defendatzeko eskubide osoa duen bezala, nik, euskaldun gazte bezala, nire iritzia emanen dut.

Hauteskundeak ez dira gure gustuko izaten, sasi-demokraziaren besta izaten baita, nolabait esanda, lau urtean behin agintari politiko batzuk bozkatzeko aukera ematen digutena. Honetaz gain, badakigu Espainiar Estatuak antolatzen dituen hauteskundeak ez direla gure

hauteskundeak, zapaltzen gaituen estatuarenak direla. Hala ere, kontziente gara, zoritxarrez, Madrilén hartutako erabakiek eragina izanen dutela, bai guregan, bai gure herriarengan.

Jakin badakigu, ezin garela lau urtetik behin ospatzen diren hauteskundeen esperantzan egon, badakigu hauteskundeen arrotzetan botoa emateak ez digula Euskal Herriaren askatasuna ekarriko. Agenda 'progresista' bat aurrera eramanez nahi dutela adituko dugu behin eta berriz agintarien eskutik, espainiar politikoen eskutik, eta agenda 'progresista' hori osatzekoako orduan, euskal herritarren ahotsa ere bertan izanen da. Euskal Herriko gazte, abertzale, euskaldun, ezkertiar eta feministen ahotsa EH Bilduk ordezkatzeko du Madrilén, HBko kideek bere garaian egiten zuten bezala. Eta hau guztia egiten dute, Espainiar Estatuaren zelaian jokatzeko dutela jakinik, beraien lege, tranpa eta guzti.

Hau guztiagatik euskal gazteok kalera ateratzeko hautua egin dugu behin baino gehiagotan, eta horren adibide dira Euskal Herrian zehar eman diren herri erantzunak, egin diren manifestazioak, ekimenak, dinamikak, eta abar. Euskal gazteok ez baikaude konforme hauteskunde arrotzak gure borrokaren fronte bakar bilakatzeaz. Guk borrokarako bertze tresna bat bezala ulertzen ditugu.

Aitzineko aldizkari batean iritzi artikulatu bat irakurri nuen, non futbol partiduen adibidearekin konparatzen ziren gaur egungo hauteskundeak. Gureak ez diren hauteskundeeen partida irabaztea ezinezkoa dela, porteriak txikiak direla, gutxiago garela eta bertze hainbertze kontu aipatzen ziren artikuluan, Madrilera joateak merezi ote duen zalantzan jarritik, eta bozkaren inguruko eztabaida mahaigaineratuz.

Badakigu Espainiar Estatuak hauteskundeeen ezer gutxi irabaz dezakegula, ez behintzat amesten dugun guztia. Hala ere, nik argi daukat zein izanen den nire hautua: beraien zelaian jokatzeko dut, ateen tamainen desberdintasunak jakinik, sei jokalarirekin baldin bada ere, eta golaren baliotasuna beraien menpe

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttiipi.eus



948 63 54 58

baldin badago ere. Partidua irabaztea ezinezkoa izanen da, dudarik ez izan; Madrilen ez dugu euskal preso politiko-koen amnistia lortuko, ezta euskal herritarron eskubideak ere, baina gola sar dezakegu, eta gol hori presoen hurbilketa izan daiteke.

Nire ahotsa Madriler a emanen dute nire ordezkariak, eta bertan independentzia aldarrikatuko dute, euskal aldarria zabalduko dute eta gola lortzeko borroka egingen dute. Aldi berean, gu Euskal Herrian egonen gara, guk jokatu nahi dugun zelaia eraikitzen, guk erabakitako neurriekin eta guk herri bezala hartutako erabakiekin. Baina zelai berri hau, eta masa artikulazio hau aktibatzen dugun bitartean, zelai arrotzetan ere jokatuko dugu, 10 lekutan borrokatuz baino errazago irabaziko dugulako 11 lekutan borrokatuta.

Hosto-haizagailua eta ingurumen politika

BITOR ABARZUA FONTELLASA

Haizea botaz belar-sailak, bide-ertzak eta inguruak hostoz garbitzeko erabiltzen den makina motorduna, bizkarrean eramaten ohi dutena eta gasolinaz edo argindarraz funtzionatzen duena. Ze gogaikarriak diren! Baina hor dago Txerrenaren makina, garapenaren ikur. Garapena? Lan gogorra kentzeko omen dago asmatua ditzosozko trastea, baina kaltegarria da oso. Lehenengo, zarata-tsua delako, kalte egiten die animaliei edo paseatzaileei, baita erabiltzen duten horiei ere, nahiz eta segurtasun kaskoak eraman. Bigarrenik, pisutsua ere bada, 7 edo 10 kiloko, luze erabiliz gero, txarra bizkarrerako. Eta azkenik, erabat kutsakorra da, batez ere erabiltzen dutena gasolinazkoa baita. Traste zaharra bada, anitzez kutsakorragoa, eta, horietarik dezente badira, ziurrenik 85 dezibelioen inguruan soinu gogaikarri hori sortzen dutenak. Munduko Osasun Erakundearen iritziz, zarata hori saihestu behar da eta, beste batzuen iritziz, baxuagoa ere

bai. Nerbioetan eragiten omen du zarata horrek, antsietate prozesuen kalterako.

Erosotasunaren izenean, zenbat aparailu eta zenbat katxarro. Erosoa al da? Izan daiteke, bai. Horrek gogora ekarri dit Whatsapp bidez jasotako istorioa. Supermerkatuko kutxazain batek aurrepigitatu omen zion atso bati bere belau-naldikoei ez zitzaie axola ingurumena zaintzea ondorengoei begira, atsoak plastikozko poltsak hartzen zituela ikusita. Atsoak erantzun omen zion: «garai hartan esne, freskagarri eta garagardo botilak dendara itzultzen genituen, dendak fabrikara eramaten zituelako garbitzera, esterilizatzera eta betetzera, behin eta berriz erabiltzen ahal ziren». Ildo beretik jarraitu omen zuen atsoak: paper birziklatuzko poltsaz, oinez leku batetik bestera ibiltzeaz (ez auto sakratuaz), pixoihalak garbitzeaz eta abar eta abar arituz; lehen, «ingurumen kontua» existitzen ez zenean, ohikoa baitzen natura zeharka zaintzea. Eta begiratuko bagenio kontuari? Zenbat diru xahutzen du demoniozko hosto-haizagailu horrek? Zarrea eta isatsa egokiro erabiltzea ez al zen anitzez osasuntsuagoa izanen? Gainera, lanpostu gehiago sortuko lirateke, azken finean, halako makinek milaka lanpostu deuseztatu dituzte. Baina, giza-kia animalia tematia da. Euritakoa astindu beharrean, poltsaratzeko makinan hura sartu eta plastikozko poltsa batean bildu behar du garapenaren izenean...

Gazteek kezka agertu dute etorkizuna gogoan. Ongi litzateke zaharrek ildot beretik munduari zerbait irakastea ea tarteko helduek antzematen duten. Batez ere boterea dutenek, azken finean, kontua politikoa baita: gobernuek badituzte beren egoitzetan ingurumena zaintzeko arauak konpliturik? Zaborrontzi egokiak liburutegi publikoetan? Auskalo median. Nire amak esaten zuen: «batak besteak egin behar duela, besteak hark egin behar duela, etxea eskobatzeke, edo, batak ez jakinez, besteak ezinez, egitekoak doaz gaizki eginez. Bi etxetako zakurra, goseak hil».

BOTA BERTSOA

ETXAHUN AZKARRAGA

BAZTAN-BIDASOKO XXXII.
BERTSOPAPER LEHIAKETAN
15-18 URTEKOETAN 2. SARIA



Mobilaren ondorioak

Doinua: Kantore berri xarmant batzuek

*Hilabetero mobila erosi
Zaborrera botaz zaharra
Lanerakore ibil beharko zen
Baldin baduzu beharra
Askok ibiltzen dute izateko
Hobe edo makarra
Mobilak ere baduelako
Alde ona eta txarra.*

*Hiru lau aste oporretako
Ospatzeko jan ta edan
Instagramera mezu bat igo
Oporretako bezperan
«Bihar bagoaz Australiara»
Lapurrentzat dena esan
Seguridadez dena ongi itxi
Baina abisua eman.*

*«Gure euskara gora Euskadi»
Herriarentzat eredu
Poliziekin dauzkagunean
Ere bai hainbat endredu
Instagramean sobera gauza
Eskaintzen bai dizkiegu
Lehen galdetzen ziguten eta
Uain guk kontatzen diegu.*

*Bertso sorta hau akautu nahi dut
Mezu txiki bat bidaliz
Edozer gauza egin daiteke
Baina beti(e)re neurritz
Kontseilu hauxe gogora zazu
Gogora ezazue guztiz
Sare sozialetan edozer igo
Baina pentsatu bi aldiz.*





«Bizitza bizitzeko beste modu bat» eman dio aizkorak Rekondori. RAKEL RICO

«Finalera sailkatzearekin pozik nago baina ez dut lan ona egiterik izan»

JON REKONDO SALABERRIA LEITZAKO AIZKOLARIA

Euskal Herriko Aizkolari Txapelketako finala jokatu zuen iaz Jon Rekondok. Aurten, finalera sailkatzeaz gain «iazkoa hobetu eta lan txukuna» egiteko erronka jarri dio bere buruari

N. BAZTERRIKA LEITZA

Orain hogeitazko urteko aizkora kolpeen oihartzuna datorkio gogora Jon Rekondori (Leitza, 1984) bere ibilbidearen hasieraz hitz egitean. Orozkoko lehendabiziko saio hartatik, hamaika plazatan eta txapelketatan ibili da leitzarra. Joan den urtean lehenbizikoz, Euskal Herriko I. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatzeak aukera izan zuen, «aizkolariontzat txapelketa inportantea da hori eta hor parte hartzeko aukera izatearekin pozik nago». Bideak urratzeko gogotsu dago Rekondo, eta aurten «finaletan egindako lana hobetzea» izanen du helburu.

Noiz eta nola hasi zinen aizkora?

Txikia nintzela, Kristina eta Migeltxo Saralegiren baserrira joaten nintzen, auzo berean bizi ginelako. Kristina Saralegi orduan aizkora aritzen zen. Egun eta ordu bererako bi saio hartuak zituenez, batera nik joan nahiko nukeen galdetu zidan. Halaxe hasi nintzen, kasualitatez. Orozkoko festetan haren ordeztatu nintzen, Maika Ariztegiren aurka. 14 urte inguru izanen nituen or-

duan. Egun batetik besterako kontua izan zen. Urte horietan, Saralegitarrak saio asko egiten zituzten eta ni haien arrimuan hasi nintzen.

Nork erakutsi zizun?

Saio horren ondoren, tarteka aritzen nintzen arren, 16 urte inguru nituela, serioago entrenatzen hasi nintzen. Ordutik, urte askoz, Jaunarenak erakutsi dit.

Noiz hasi zinen plazetan eta txapelketetan parte hartzen?

«EUSKAL HERRIKO FINALA JOKATZEKO AUKERA IZAN DUT ETA POZIK NAGO»

«GAUR EGUN OSO ZAIL IKUSTEN DUT IKER VICENTERI IRABAZTEA»

Plazetan lehendabiziko saio hartatik aurrera, bata bestea- ren atzetik izan nituen. Hurrengo udan, 15 bat egin izanen nituen. Txapelketetan, berriz, 16 urte nituela. Lehendabizikoa Gazte Mailako Txapelketa izan zen, Lekunberrin. Orduko oroitzapen oso onak ditut. Xabier Mindegiak irabazi zuen eta ni izan nintzen bigarren. Nik 16 urte nituen, baina oso txikia nintzen. Xabier Mindegia ordurako oso haundia zen eta haren ondoan txiki sentitu nintzen. Ikara sentitu nuela oroitzen dut. Xabier Mindegia orduan asko aritzen zen aizkora eta lan ederra egin zuen. **Zertan aldatu zaizkizu txapelketak ordutik?**

Gaur egun, lasaiago aritzen naiz. Prestakuntza ere aldatu da. Lehen oso lan laburrak izaten ziren eta gutxi prestatuta ere egin zitezkeen. Gaur egun, berriz, saioak luzeagoak dira eta prestakuntza behar da. Lehen astean behin entrenatzen nuen eta orain, txapelketak direnean, egunero egiten dut zerbait: aizkora ez bada, mendi bueltaren bat edo...

Noiz jantzi zenuen lehendabiziko txapela?

17 urte nituela, 18 urtetik behera tikoentzako Gazte Mailako Txapelketa irabazi nuen. Hori irabaztea pozgarria izan zen eta orduko oroitzapen ona dut. Geroztik, beste batzuk irabazi ditut: Nafarroako II. mailakoa, Urrezko Kopakoa, Euskal Herriko II. mailakoa...

Euskal Herriko II. Mailako Aizkora Txapelketako finala bi aldiz irabazi duzu. Urte batean, txapelketako gazteena zinen gainera...

Bai, hala da. Gaur egun aizkolari gazte gehiago dago. Bola batean, aizkolari gazte askorik gabeko urteak izan ziren. Orduan, gazteena izatea ez zen harritzekoa. Dena den, gazteena izan zein ez, irabaztea beti da pozgarria.

2008an gazte mailako Urrezko Aizkorakoa irabazi zenuen...

Urrezko Koparako prestatzen aritu ginen, baina hori ez zi-

tzaigun oso ongi atera. Hila-beteren buruan Urrezko Aizkora zenez, horretara joan ginen eta irabaztea lortu genuen. Batean gaizki, bestean ongi aritu ginen.

2017an Aizkolarien Kopako finalera sailkatu zinen, Iker Vicente kanporatuta...

Iker Vicente, aspaldi honetan, faboritoa da. Berari irabaztea ez da erraza, ez zuen egun ona izanen... Gaur egun, oso zail ikusten dut hori. Orduan irabazi genion eta pozik. Horrelako egunak bereziak dira, ez dira ahazten.

2019ari begira, nolako balorazioa eginen zenuke?

Finaletara ailegatu naiz behintzat. Finaletan egindako lanarekin ez nago horren gustura. Lana dela eta, nekatu samar ailegatu naiz eta ez naiz ongi aritu. Iazkoa baino urte hobeak izan ditut, nahiz eta final guztietara ez ailegatu, egindako lana hobeak izan delako sentiazioa izan dut...

Urrezko Aizkorako Binakako finalera lehenago ere sailkatu zara...

Bai, bitan Ander Erasunekin eta beste behin Ruben Saralegiarekin aritu naiz. Beti txapelondunorde izan gara. Lagun handiekin aritzea beti da pozgarri.

Iaz Euskal Herriko I. Mailako Aizkora Txapelketako finalean parte hartu duzu lehenbizikoz...

Bai. Lehendik ere sailkatzea lortu nuen, baina, bi aldiz auto istripua izan dudalako eta beste batean behatzean ebaiki bat egin nuelako, iaz arte ez nuen jokatzetik izan. Lehendabiziko aldia izan zen. Finalean sartzea ez da erraza eta jokatzeko gogoia nuen. Txapelketa hori aizkolarientzat dagoen txapelketa inportantea da eta hor izatea pozgarria da. Finaleko lanarekin ez nintzen gustura gelditu... Nekatuta sentitu nuen neure burua, nerbiorik gabe...

Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketan hirugarren postua lortu zenuen...

Garbi esanda, bigarren egiteara joan nintzen. Bigarren bu-



Jon Rekondo Euskal Herriko Aizkolari Txapelketako finalean. UTZITAKOA

katzeko aukerak banituela uste dut, baina ez nengoen nire onena emateko moduan. Azkenean, hirugarren postuarekin konformatu behar izan nuen.

«AIZKORAK SEGIDA IZATEKO APUSTUAK BEHARREZKOAK DIRA»

Otaegi eta Olasagastiren aurka apustuak ere egin dituzu...

Bai. Otaegiren aurkakoan (2007) gaztea nintzen eta ez nuen behar bezala prestatu. Olasagastiren aurkakoan (2014an), berriz, bost segun-

«GAZTE ASKO DAGO ETA MAILA ONA DUTE. BERAZ, ETORKIZUNA BADA»

Laburrean

Aizkorak eman dizun egun bereziena?

Olasagastiren aurkako apustua, jendearen babesagatik.

Aurkari gogorrena?

Ugaitz Mugerza.

Aizkolari hoberena?

Garai batean Mindegia eta egun Iker Vicente.

Plaza bat?

Leitzako plaza.

Lan luzeak edo laburrak?

Jokatzeko laburrak, ikus-teko luzeak.

Aizkolari onak zer ezaugarri behar ditu?

Burua, indarra eta fisikoa.

Aizkora ez den kirol bat?

Esku pilota.

dogatik galdu nuen. Azken egurra bakarrik moztu zuen nire aurretik... Baina, azken finean, azkena da balio duena...

Zer dute apustuak bereizgarri?

Aizkora edo herri-kirol munduan, aurrera segitzeko, apustuak beharrezkoak iruditzen zaizkit. Apustua denean, ez dakit zergatik baina, ingurukoak gehiago inplikatzeko dira. Etxe ingurura egun horietan jende asko etortzen da. Ondokoak horrela ikusteak buruzaletasun gehiagorekin prestatzeko bide ematen du. Dena dela, apustuak egitea zaila da, lana alde batera utzi behar da eta hori gaur egun...

Aurrera begira, zein dira zure erronkak?

Urrezko Aizkorako Binakakoan ari gara orain eta ea hor lan polita egitea lortzen dugun. Aurtengo urteari begira, bi finaletan sartu, eta horietan sartuz gero, lan txukuna egitea dut buruan. Ea joan den urtekoa hobetzea lortzen dudana.

Zer eman dizu aizkorak?

Bizitzeko beste modu bat. Horretara jarria nago. Neguan txapelketetarako entrenatu eta jokatu, udan, berriz, herriz herriko saioetan aritu... Urte osoa horren bueltan egiten dugu. Sakrifizioa eskatzen du eta zerbait gaizki ateratzen denean uztea ere pasatzen da burutik... Dena dela, gero ahaztu egiten zaigu! (irri artean). Gustukoa dut eta horrek balio du. Momentuz, osasunak laguntzen digu eta...

Nola ikusten duzu aizkoraren etorkizuna?

Gazteak badaude eta maila ona dute. Euskal Herriko txapelketan Iñaki Azurmendi eta ni ginen zaharrenak eta hori seinale ona da. 30 urtetik beherrako lau aizkolari zeuden finalean eta hori asko dela esanen nuke. Okerrago egon da. Ikusle aldetik, egun inportanteetan jende asko izaten da. Euskal Herriko finalean 1.900 lagun zeuden eta plazetan ere jende asko biltzen da. Jendea mugiarazten du eta hori seinale ona da.



Lorea Zubieta eta Ana Larretxea 2007an Taillon mendian zendu zen Xabier Zubietaren alaba eta bikotekidea.

Denaren gaineretik mendia maitatzen segitzen dute

Urtarrilaren 13an hamahiru urte beteko dira Taillon mendian Xabier Zubieta, Luis Mari Pikabea eta Xabier Saralegi mendizaleak hil zirenetik. Zoritzarreko egun hartaz eta geroztik egin duten bideaz aritu dira Lorea Zubieta eta Ana Larretxea, Xabier Zubietaren senitartekoak

G. PIKABEA ARANTZA

Mendiak eman eta kendu egiten du eta hori ongi dakite Ana Larretxea Apezetxea (Arantza, 1973) eta Lorea Zubieta Larretxea (Arantza, 2004) ama-alabek. Biek maite dute mendia, maldangoiti eta beheiti ibiltzea, lasterka edo oinez, baita eskalatzeko ere; baina kendu ere egin die, eta aunitz, duela 13 urte batek bikotekidea eta bertzeak aita galdu zuten mendian.

2007ko urtarrilaren 13an gertatu zen ezbeharra, Taillon mendian (Frantziako Pirinioak). Urtarrilaren 6an Anayet mendian (Huesca, Espainia) Unai Etxepare Elizegi lesakarra hil zenean, haren erreskatean ibili ziren Xabier Zubietaren Erkizia *Zubi* eta Luis Mari Pikabea Zubieta *Loro* beratarrek eta Xabier Saralegi Alzate lesakarra. Astebete beranduago eu-

rek eraman zituen mendiak, 33 eta 32 urterekin. Taillon iparraldeko pareta, soka berean igotzen ari zirela, irristatu eta amildu ziren hiru gazteak.

Zubiren bikotekidea zen Larretxea, eta Lorea Zubieta alaba. Bi urte eta erdi baino ez zituen eta zoritzarreko eguna

«jendeak kontatu didanarekin» oroitzen du. Amak bai, gogoan du: «eguraldi ederra egiten zuen, eta tontakeria iduri badezake ere, sobera ona zela erraten nuen. Sentimendu arraroa nuen». Etxeko atea jo ziotenean hartu zuen lehenbiziko zantepatekoa: «istripu batean erori

zela erran zidaten». Gurasoen ostatura joan eta hura hiru mendizaleen senide eta lagunez bete ikusitakoan jakin zuen gertatuaren berri. Ezzuen halakorik espero, nahiz eta «beldurra» izan. «Etxeparere-na pasatu berria zen eta *Zubiri* bera joateak beldur handia ematen zidala errana nion».

Lehenagotik ere, bereziki ama izan eta gero, kezka hor zuen: «Edurne Pasabanekin ibili ziren garaian, zortzimila-koak egiteko bere fitxaketak izan zirela erraten zien. Baina nik bi haur ttikirekin bertze zortzimilako bat etxean pasatzeko ez nengoela prest erraten nion». Bere hitzetan, «*Zubik* ere hala sentitzen zuen. Haurdun nengoela eta semea jaio-takoan, ateraldi bana egin zituen, eta egunerokoan etxera etortzeko gogo sentitzen zuela idatzi zuen». Gainera, «ordurako mendian ez ziren hainbertze ibiltzen. Mendi lasterketetan hasiak ziren. Zegama-Aizkorriren lehenbiziko edizioak ziren eta *Zubik* bi aldiz egin zuen».

Mendiz mendi gozatuz

Hiru mendigoizaleen gisara, Larretxea ere mendian trebatua da. «*Zubi* ezagutukoan» eman zuen pausoa: «ordura arte, kirola egiten nuen, baina mendian berarekin hasi nintzen. Denborarekin astebururo mendira joaten hasi ginen, hasieran *Lororekin*, eta gero Patxi [Pikabea] eta Xabinorekin [Korta]. Izkin guztietara

Mendiaren Eguna urtarrilaren 11n

Taillon hildako hiru mendizaleak gogoan, aurten XIII. aldiz, Mendiaren Eguna antolatuko dute Manttale Mendi Lasterketa eta Agerra Mendi taldeek larunbatean, hilak 11, Beran. 2008an egin zuten lehen aldiz, Iñaki Pikabea Zubieta *Lororen* anaiak eta *Zubiren* lehengusuak dioenez, «hirurak



Iñaki eta Juan Ramon Pikabea, *Lororen* anaiak, Santa Barbarako igoeran.

oroitzeko. Haien asmoa Santa Barbara bikotekako lasterketa antolatzea zen». Eta hala egin dute, haien ametsa egia bilakatu. Areago, azken urteotan, Mendiaren Eguna izenburupean egun osoko egitaraua prestatzen dute. Aurten ere, lasterketez gain, eskaladailerra eta dokumentalaren emanaldia egingen dituzte. Xehetasunak 13. orrialdean.

bortzok joaten ginen». Euskal Herriko mugak maiz zeharkatu zituzten: «Pirinioetan, Alpeetan, Perun, Himalaian... ibili ginen». 1999an Gasherbrumera (8.035 metro) egindako espedizioan parte hartu zuten eta orduko oroitzapen «zoragarriak» gordeak ditu, «sufritzen ikasi nuen. Gauzak lortzea kostatzen da, pazientzia behar da, ibili eta sufritu, bizitzako bertze alorretan bezala».

Ikasteko bidea

Taillon iparraldeko pareta ere igotakoa da, «lotu gabe eta neguan. Arduragabeak izan ginen». Nola diren kontuak, toki horretan gertatu zen ez-beharra. Argi du «istripua» izan zela: «Mila kontu aditu behar izan ditut, harat joanda arriskua bilatzen dela eta bertzelako kontuak. Arriskua bai bada, baina istripuak ere gertatzen dira, eta ez mendian bakarrik».

«Kolpe gogorra» hartu zuen, eta «dolua gainditzea hagitx gogorra» izan zela azaldu du. Geroztik egindako bidea, ordea, ez da alferrikakoa izan: «Aunitz ikasi dugu. Seme-alabei begiratzen diedanean, kontent sentitzen naiz. Gai dira gertatu zenaz solastatzeko. Lan handia egin dugu eta orain fruituak jasotzen ari gara. Familia berria osatu dugu eta kontent bizi gara». Alabak «bidean lagun handiak» egin dituztela adierazi du «eta gertatu zena gainditzeko jakin dugu».

Mendian gozatzen dutelako, horri eutsi diote hasieratik. «Argi nuen etxean kirola egingen genuela». Eta hala izan da. «Opor aunitz Pirinioetan pasatu ditugu», berretsi du alabak. Gainera, gurasoen mendirako eta lasterka ibiltzeko zaletasuna barnerratu ditu, berak zein anaiak. «Bortz urteko alaba gazteena ere mendira gusura» joaten dela aipatu du amak.

Lorea «zazpi urterekin» hasi zen Manttale Tiki atletismo eskolan eta «hor segitzen dut, gazteen taldean. Berriki eskalatzen ikasten ere hasi naiz». Kirola egitea «deskonektatze-



Zubi, Loro eta Saralegi gogoan bi urtetik behin Taillon aldera ateraldia egiten dute. Joan den uztailan egin zuten azkena.

ko» bide da beretzat: «azterketak bukatzean mendira joateak lagundu egiten dit. Gustura joaten naiz». Hori bai, mendia-ri «errespetua» dio: «Bertze bati pasatzean, zuri ere gertatzen ahal zaizula pentsatzen duzu; guri aitarekin etxean tokatu zaigunez, errespetu gehiago sentitzen dut. Baina horregatik ez gara joan gabe geldituko». Bide beretik jo du amak: «beldurrak paralizatu egiten du eta horrela ezin dira gauzak egin. Mendiari errespetua izanez gero, helburuak lortzen dira». Garbi du: «mendira joaten segituko dugu».

Santa Barbara, Taillon, Ekaitza

Aitaren heriotza maiz izan dute hizpide etxean eta horren seinale da gai azartzeko duten naturaltasuna: «ez du tabua izan behar; ez da egunero solastatu beharreko zerbait baina on egiten du etxean eta hurbileko lagunekin aritzeak», dio gazteak. Harro oroitzen da aitaz. Hunkituta «pertsona indartsua eta eredugarria» zela erran du. Baina amaz ere miresmenez mintzo da: «gertatu zena gainditzeko erakutsi digu».

Bidea ere argi dute, amak dioen bezala, «ezin dugulako gertatu zenari lotuak bizi». Ez dute aita atzendu, ezta nahi



Santa Barbarara egindako lasterketan, Aimar Zubieta (Zubi eta Larrebxearen semea), Juanen Saralegi (Xabier Saralegiren anaia), Lorea Zubieta eta Ana Larretxea.



ere. Hala, Zubi, Loro eta Saralegi gogoan egiten diren hitzorduetan ez dute hutsik egiten. Bi urtetik behin, Berako Agerra Mendi Taldeak eta Manttale Mendi Lasterketa Taldeak Taillonera ateraldia antolatzen dute udan. Larretxea aunitzetan izana da eta alabak iaz egin zuen estreinako bisita: «Aitarrena buruan izanagatik, mendia gustuko dudanez, hagitx esperientzia polita izan zen».

Urtarrilean, berriz, mendizaleen errautsak dauden Berako Santa Barbara mendira egiten den kronoigoeran parte hartzen dute amak eta seme-alabek; bi aldiz egin du alabak, eta batean baino ez du hutsik egin amak. Larunbat honetan egingen den aurtengo igoeran ere

han izanen dira, «haien oroi-menez, baina baita ongi pasatzeko ere», dio Zubietak. Ez da bere urteko bisita bakarria: «Berako bestetako lehenbiziko egunean ere joaten gara eta Manttaleko entrenamenduetan noiznahi. Iaz, nire urtebetetze egunean, Berako amatxi eta izebarekin ere igo nintzen». Aitortu digunez, «nekatua nagoenean, goitiraino igotzeko indarra» sentitzen du eta behin tontorrera ailegatuta «poza».

Arantzako Ekaitza mendia ere «berezia» dute, Zubi gogoan oroitarria eta ikurrina han baitaude: «ilusio handia egiten digu. Arantzan bizi zen eta Ekaitzakoa eta Arantzako mendi lasterketan ematen duten Zubieta Saria Arantzan beraz oroitzeko modu bat da».

Esker oneko hitzak dituzte horiguztia posible egiten dutenentzat: «Denek merezi dute oroituak izatea eta Zubi oroitzeko horrelako aukera izateagatik pribilegiatuak sentitzen gara; eskertzekoa da».

«LAN HANDIA EGIN DUGU ETA AUNITZ IKASI DUGU»

ANA LARRETXE APEZETXEA, ARANTZA

«EZ GARA MENDIRA JOAN GABE GELDITUKO»

LOREA ZUBIETA LARRETXE, ARANTZA



Mugikortasun Planak herritarren interesa piztu du eta udaletik batzordean parte hartzeko deia egin dute. UTZITAKO ARGAZKIA

Trafiko araudia antolatzeke lanean hasi da batzordea

Mugikortasuna hobetzeko behin behineko 25 neurri aurkeztu ditu udalak, oinezkoei eta txirrindulariei lehentasuna emanez

TTIPI-TTAPA

Oinezkoei, txirrindulariei eta mugikortasuna mugatua duten pertsonen lehentasuna eman nahi dien Mugikortasun Plana lantzen ari da udala. Horretarako herritarren parte-hartze prozesua ere ireki du. Udalaren behin-behineko proposamenen 25 neurri

azaldu dituzte. Oinezkoei dagokienez, segurtasuna bermatuko duten ibilbide integralak diseinatu ditu udalak; espaloiak egokituko ditu, irrisgarritasuna bermatzeko eta segurtasun neurrien artean, zehrabide altxatuak eta abiadura murriztaileak egin nahi ditu. Epe laburrean ezarri nahi

dituen berehalako behin-behineko neurrien artean hauek daude: hondatuak diren espaloietan parte hartzeak, zementuarekin berdinduz; zehrabide estrategikoak moldatu oztupoak baztertzeko, eta argitasuna eta seinalizazioa hobetu eta zehrabide estrategikoetan abiadura murriztaileak jarri

Epe ertainean egingen diren behin-betiko neurrien artean, berriz, Legia karrikako moldaketaren bigarren fasea bukatzea; hainbat karriken peatonalizazioa, osorik edo eredu misto batean eta espaloiak moldatzea herriko ibilbide integral bat osatuz.

Txirrindulariei dagokienez, epe laburrean ezarri nahi di-

tuzten berehalako behin-behineko neurrien artean, herri osoko karriketan txirrindularien lehentasunezko karril-marrak marraztea edo txirrindula-parkinak puntu estrategikoetan paratzea daude. Epe ertain batean ezarriko diren behin betiko neurrien artean, hainbat karrika oinezkoentzat/txirrindularientzat egokitu, osorik edo eredu misto batean edo txirrindula elektrikoaren alokairurako udal zerbitzuaren ezarpena aztertzea daude.

Autoei dagokienez, herritarrentzat erreserbatutako aparkalekuak gune estrategikoetan paratzea, denontzat libre den aparkaleku sistema orokorra ezartzea, autoen partekatzea bultzatzeko kanpoaldeko aparkalekuak bultzatzea edo Larungo autobusen proiekturako Illekueta-Itzeako urbanizazio berrian aparkalekuak egitea aztertzen ari da udala. Matzadako aparkalekua karabanentzat ere egokitu nahi dute.

Udaletik batzordean parte hartzeko deia egin dute. Horretarako eta proposamenak egiteko beramugikortasuna@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da.

ANTZUZELAI
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



Auzoa GO!

Etkez etxeko zerbitzua
BERAn

ESKAERAK:
www.auzoago.com • T. 948 63 15 09

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

MARITX

• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

XIII. Mendi Eguna antolatu dute larunbaterako

Santa Barbarako kronoigoeraren ondotik, Edurne Pasabanen 'Chhaupadi' dokumentala eskainiko dute Kultur Etxean

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, urtarrilak 11, Berako Mendi Egunaren hamahirugarren edizioa antolatu dute Manttale Mendi Lasterketa Taldeak eta Agerra Mendi Taldeak, Udalarren eta bertze zenbait erakunderen laguntzarekin. Bertan, Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi omenduko dituzte, 2007ko urtarrilaren 13an Taillon mendian hildako mendizaleak.

Egitaraua larunbatean 09:45ean hasiko da Toki Ona kiroldegian, eguerdira bitarte egingen den haurrentzako eta gazteentzako eskalada tailer batekin.

14:15ean Rikardo Baroja Eskolako aterpean, Santa Barbarako mendi irteeran eta binakako kronoeskaladan parte hartzeko izen-emateak irekiko dituzte. Aitzinetik ere eman daiteke izena, Pikabea harategian, Agara prentsa-dendan, Errekalde ostatuan eta manttaletaldea@gmail.com helbide elektronikoan. Bai kronoeskalada baita txangoa ere kiroldegiko ataritik

abiatuko dira, Santa Barbarako gainetik pasa eta abiapuntura iritsiko dira 5 kilometro eta erdiko ibilbidea burutuz.

Ibilaldia 15:00etan hasiko da eta kronoigoera 15:30ean. 15:00etan 12 urte artekoentzat lasterketa ere egingen da.

Kronoigoera partaide guztientzat irekita dago, baina 16 urte baino gutxiago daukatekin heldu batekin egin behar dute ibilbidea nahitaez. Ibilaldia eta kronoigoera bukatzerakoan Rikardo Baroja eskolan merienda izanen dute. Eta honen ondotik sarien zozketa egingen dute mendi irteerako eta kronoigoerako parte-hartzaileen artean.

Edurne Pasabanen dokumentala

Mendi Eguna borobiltzeko, 19:30ean Kultur Etxean, *Chhaupadi. Una expedición de Edurne Pasaben a la cara oculta del Himalaya* dokumentala eskainiko dute. Nepalen oraindik ezezaguna den eskualde horretan emakumeek jasaten duten diskriminazioaren berri ematen du filmak.



UTZITAKOA

Afrikako danborrak eta dantzak

Danborrek girotutako dantza afrikarren ikuskizunaz gozatu zuten abenduaren 27an San Esteban elizan. Emanaldi ikusgarria bukatu zenean borondatearen truk danbor baten zozketarako txartelak banatu zituzten eta Edurne Garro Dozagarati egokitu zitzaion.



UTZITAKOA

Glin-Glan eskean agurtu dute urtea

Ohiturari eutsiz bukatu zuten urtea herrian. Ttikienak Glin-Glan abestuz eta goxokiak, intxaurrak eta frutak eskatuz ibili ziren etxez etxe. Abesbatzak eta berekin batera ibili zirenek, berriz, Diostesalbe eta Eguberrietako kantuak hedatu zituzten arratsean.

Igogailua paratu dute Musika Eskolan

Irisgarritasuna bermatu eta oztopo arkitektonikoak kentzeko igogailua paratu dute Musika Eskolan. Sarobe erakuntza enpresak egin du 94.380,94 eurotan eta 33.039,86 euroko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak.



Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara

LABE ZAR

Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

948 631 076 • BERA

K SAT

TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

T. 637 40 86 40 • 31780 BERA

andonimalxako@gmail.com

Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etiketresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Inauterietako kartel lehiaketa egingen da lehen aldiz

Lanak urtarilaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira eta 250 euroko saria izanen du irabazleak

AITOR AROTZENA

Inauteriak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deialdia egin du Udalak.

Kartelaren neurriak A2koa izan beharko du (420x594 mm) eta bertan, derrigorrez, 2020ko Inauteriak Lesakan otsailaren 20tik 25era azaldu beharko du. Lesakan jaioak edo bertan erroldatutako 18 urtetik goitiko pertsonak parte har dezakete eta aurkezten dituzten lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute.

Aurkezpena gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sis-

tema erabiliz egin daiteke, urtarilaren 17ko 13:00 arte.

Aurkezten diren lan guztiekin erakusketa bat osatuko da Kultura eta Turismo Bulegoan, urtarilaren 20tik 24ra (biak barne). Herri bozketak erabakiko du irabazlea. Horretarako, erakusketak irauten duen bitartean, bertan, Lesakan jaioek edo bertan erroldatuak direnek bozkatzeko aukera izanen dute erakusketa-egunetan. Kartel irabazleak 250 euro jasoko ditu. Udala jabetuko da lan sarituez eta berzteak itzuli egingen ditu.

'Zizelkariak' lana aurkeztuko dute urtarilaren 12an

Zizelkariak dokumentala eskainiko dute urtarilaren 12an, igandean 18:00etan Arranon. Euskal Herriko sei ertzetan hainbat arlotan borrokan ari diren sei gazteri ahotsa ematen dio dokumentalak. Egileen artean daude Garazi Conde eta Maddi Ane Txoperena.

San Anton ospatuko dute urtarilaren 17an eta 19an

San Anton Egunaren inguruko ospakizunak egingen dituzte egunotan Endaran. Hilaren 17an, San Anton eguna izaki, bi meza izanen dituzte, baina ospakizunik handiena ondoko igandean izanen dute. Mezak izanen dira orduero eta erromeria giroa.



AITOR AROTZENA

105 ipuin Beti Gazteren lehiaketan

Beti Gaztek antolatutako ipuin lehiaketako sariak banatu zituzten abenduaren 19an, Pello Añorgaren saioaren ondotik. 105 ipuinen artean, Enaitz Bereau Irigoien, Ekaitz Irazoki Mendizabal, Aroa Arozena Tapia, Mikel Urdangarin Taberna, Olarixu Urrea Yecora eta June Salgado Solorenak saritu dituzte.

Nafarroako VI. Trikiti jaialdia urtarilaren 18an egingen dute Harriondoan

A. AROTZENA

Nafarroako seigarren trikitixa jaialdia egingen dute urtarilaren 18an Harriondoa Kultur Etxean, 17:30ean hasita. 2016an eta 2018an ere herrian egin zuten jaialdi hau. Ibon Gaztañazpik aurkeztuko duen emanaldian Iñorkiñak, Irma Karrera eta Jokin Tolosa, Imuntzo eta Aintzane Agirrebeña, Zazpitan lehenak joteroak, Ioar Oteiza, Garazi Erbiti eta Ladis Satrustegi, Iñaki Plaza eta Alex Lopez eta Iker Goenaga eta Jon Lasa ariko dira. Euskal Telebistak ere graba-

tuko du emanaldia, ondoko egunen batean eskaintzeko asmoarekin.

Nafarroako Trikitixa Elkar-teak eta Lesakako trikitixa taldeak antolatu dute jaialdia, udalaren eta bertze zenbait erakunderen laguntzaz. Sarrerak dagoeneko eskura daitezke Zialdo ostatuan eta Oninart dendan edo erreserba bidez nafarroakotrikitixaelkartea@gmail.com helbide elektronikoa 12 euroren truke. Jaialdiaren ondotik afaria izanen dute Irubiden (20 euro).

Denak Bat
Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826

Frain Auzoan
BEANDONEA, S.L.
FRUITAT GEA BARRAZKAT
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidaso, 76 - atea 21-22 • BERA

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Sute elkartearen batzarra izanen dute urtarrilaren 12an

Igande goizeko hamarretan egingen dute Kultur Etxean eta su-itxalgailuen errebisioa ekainean egingen dute

IRUNE ELIZAGOIEN

Urtarrilaren 12an, igandean 10:00etan Kultur Etxean Sute Elkarte batzar orokorra egingen dute. Gogorazi behar da, mendiko suak itzaltzeko pala bereziak baserrietako ondorengo ordezkariak dauzkatela: Urritzokietan, Zamudieneko bordan; Larrapil-Sarrikun, Iturraldeko bordan; Lakain-Apezborron, Arrineko bordan; Orizkin, Tolareko bordan; Lurritiederran, Goinetxegaraian, eta Gorosurretan, Maisterreneneko bordan. Aitzineko urteetan erositako

su itxalgailuen errebisioa ekainean egingen dute Kultur Etxeko arkupean.

Mikel Irigoien Porc d'Or sarietan zilarrekin

Azaroaren 29an Huescan izan zen sari banaketan izan zen Mikel Irigoien etxalartarra. Zilarrezko saria lortu zuen Porc d'Or sarietan, zerriek daukaten bizi iraupenagatik, 200 animalia baino guttiagoko esplotazioen kategorian. Guztira 44 granjetako mila profesional baino gehiago elkartu ziren sariketa gala honetan.

Mikel Iturriak gerriko beltza lortu du kenpo kain

Mikel Iturriak gerriko beltza lortzeko azterketa gainditu zuen abenduaren 8an Oiarzunen. Orain arte gerriko marroia bazerabilkien arren, gerrikoa aldatzeko azterketa hau gaindituta, beltza erabiliko du aurrerantzean.



LANDAGAIN ESKOLA

Pello Añorga eta Olentzero eskolan

Abenduaren 10ean Pello Añorga idazlea izan zen Landagain eskolan, *Liburuak Gozagarri* programan. Saio hauen helburua ikasleen irakurzaletasuna bultzatzea da. Abenduaren 20an, berriz, Olentzeroren bisita izan zuten eskolan. Ikasleen eskutik ikuskizun bikaina izan zuten hurbildu zirenek.



JOSEBA OLAGARAI

Olentzero eta Mari Domingiren bisita

Ez zuten hutsik egin Olentzero eta Mari Domingik. Musikaiek lagunduta herriari itzulua eman zioten eta txokolate beroa eta pintxoak izan zituzten. Meza ondotik, trikitilariak saioa eskaini zuten frontoian. Olentzero eta Mari Domingirekin solastatu eta dantzan aritzeko aukera izan zuten,

OTXANGO BAHÍA



Otsango ind.
LESAKA

- Eguneko menua, plater konbinatuak, ogitartekoak.
- Eramateko janaria eta etxeko etxeko zerbitzua.
- Bilera, ekitaldi edo ospakizun partikularretarako jangela alokatzen dugu.

Ordutegia: Irekia astelehenetik larunbatera 07:15-16:00h.
Afariak enkarguz bakarrik.
Igandetan itxia (bazkariak enkarguz bakarrik).



948 638 126 | 627 877 281





Bertsolari gaztetxoak, Arzallus, Laburu eta Estitxu Arozena irakaslearekin. O.T.



Estitxu Pinatxo eta Mikel Sanchez kontzertuan. OSKAR TXOPERENA

Ekitaldiz betetako abenduarekin bukatu da urtea

Gabon egunean atera ziren lau Olentzeroen artean, bigarren urtez segidan Biltoki Ttikikoa izendatu zuten onena

TTIPI-TTAPA

Hilabete hasieran Kultur Egunekin hasi eta Olentzeroarekin bukatuta astero izan zen zerbait joan den urte akabilan.

Kultur Egunetako ekitaldi gehienak jendetsuak eta animatuak izan ziren, gai hagitxerbez dinak ukituz (liburu eta DVD aurkezpenak, bertsoak Maddalen Arzallus eta Agin Labururekin, Estitxu Pinatxo eta Mikel Sanchezen *Dama beltzak* kantaldia, hitzaldiak, antzerkia, dantzak, opil-jateak...).

Hurrengo astean Giltzarri Abesbatzak eskainitako Egu-

berrietako kontzertuaren txanda izan zen, jendetsua hau ere, urtero bezalaxe. Entzundakoarekin gustura atera zen jendea elizatik.

Azkenik, Gabon Eguneko goizean etxe eta baserrietan ibili ziren haur eta gaztetxoak eskean. Arratsaldean, berriz, herriko karriketako urteroko itzulua egin zuten lau Olentzeroek: Biltokikoak, Biltoki Ttikikoak, eskolako haurrenak eta Toki-Onakoenak. Ondotik egindako lehiaketan Biltoki Ttikikoak irabazi zuen bigarren urtez segidan Olentzero hoberenaren saria.



Biltoki Ttikikoak irabazi zuen Olentzero hoberenaren saria. OSKAR TXOPERENA

Oian Canabal eta Joseba Aldabe Nafarroako txapelkun suertatu dira

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 23an Iruñeko Labrit pilotalekuan jokaturako finalerako Oihan Canabal eta Joseba Aldabe herriko pilotariek Nafarroako txapela eskuratu zuten Eneko Iholdi eta Mikel Beroiz menperatuta. Partida bikaina jokatu behar izan zuten herritarrek gaur

egun Espainiako txapelkunak diren pilotariak menpean hartzeko, 22-18.

Urte borobila izan da Oian eta Josebarentzat, txapel sailtxoa ekarri dute etxera eta ez nolanahiko txapelketetan irabaziak. Aspaldian igantziar pilotariak eman duten mailarik hoberena eman du bikoteak.

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

www.logurak.com

gaueko konfort-kuxina

Centro Prim

regina tolosaechebare

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDETEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDETEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika • BERA
zubiondojatetxea.com

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

Inauteriak otsailaren 6tik 8ra izanen dira

Urte hasierako besta handienaren inguruko xehetasunak hurrengo aldizkarian agertuko dira

NEREA ALZURI

Pasatu berria dugu Eguberri aroa. Urte zaharra agurtu eta sartu berriak gara 2020an. Urte berri on! Baina atsedetik hartzeko asti handirik izan gabe, urte hasieran ohikoak diren ospakizunak gainean ditugu: inauteriak.

Mozorro Zuriek dagoeneko erabakia dute zein egunetan izanen diren: otsailaren 6an, 7an eta 8an izanen dira. Hurrengo TTIPI-TTAPA aldizkarian egitarauaren berri emanen dugu, eta momentuz, datak ongi borobildu zuen agendetan!



ROSA MAIZ / ENEKO SARRIAS

Pilotari gaztetxoak txapelketetan

Bortzirietako txapelketan 16 herritarrek parte hartu eta Saioa Etxegarai eta Kattin Madariaga, eta Ekai Madariaga txapeldun izan dira; Bortzirietakoan, Iker Alzuri eta Aner Mariezkurrena, Aritz Iparragirre eta Ander Etxegarai, eta Oier Sarrias eta Baztangoan Ander Etxegarai eta Iker Arozena txapeldunorde.



IGOR UGALDE

Eguberrietako ekitaldiak giro ederrean

Olentzero eta Mari Domingiri harrera beroa egin zieten herritarrek abenduaren 24an. Ez hori bakarrik. Andoni Mazizior eta Oihana Amorosen kantaldiarekin gozatzeko aukera ere izan zen. Urtezahar egunean elkartasun kalejira egin zuten eta urtarrilaren 5ean errege kabalgata egitekoa zen.




ARANTZAKO HERRI ESKOLA

Eskolako lagunak dotore aktore lanetan

Eguberrietako oporrak hartu aitzinetik, Igantziko eta Etxalarko eskolako lagunak eta herritarrek egonaldi ederrak egin zituzten eskolako ikasleen antzezlanekin. Neska-mutikoak bikain aritu ziren aktore lanetan. Urteko azken eskola egunean, berriz, Mari Domingiren bisita izan zuten.



ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantz (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@ zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
Txotx denboraldiaren irekiera URTARRILAK 16

LARRALDEA | Telleria auzoa • LEKARÓZ | 948 452121 • 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa • LESAKA | 948 637212

Inauterietarako beroketak eginak dituzte

Mendi irteerak, frontenis txapelketako finala, Olentzeroren etorrera eta eskeak izan dituzte gozagarri

MAIDER PETRIRENA

Kirola eginez edo bestan, modu batera edo bertzera, gorputza mugiaraziz 2019a akitu eta 2020a hasi dute sunbildarrek.

Mendi-irteera eta frontenis txapelketa

Mendizaleak Saioa mendian goiti ailegatu ziren urtearen akaberara, Mendaurren kas- kotik arnastu zuten urte berria. Mendiko botak jantzi zituzten batzuek, erraketak astindu bertzeek.

Abenduaren 31n jokatu zu- ten frontenis txapelketaren final handiak ikusmira eragin zuen. Emakumezkoetan Maia- len Gainzerain eta Maite Iba- rra izan ziren txapeldun; Ama- goia Grajirena eta Mirari Ma- riezcurrrena bigarren. Gizo- nezkoetan, berriz, Andoni Espelosin eta Mikel Ibarra izan

ziren irabazle; eta Luis Mari Retegi eta Xanti Manterola txapeldunorde.

Olentzero eta eskeak

Eskolan eta eskolatik kanpo, haurren Eguberrietako kanten oihartzunak belarri anitz go- xatu zituen. Olentzeroren bueltan ailegatu ziren lehen- dabizikoak. Gazteak, bihara- munean, eskean ibili ziren; arratsaldean herrian barna, gauez baserrietan, Beñat Mi- txelena akordeoilaria lagun zutela. Urte berriarekin bate- ra gaztetxoek hartu zuten le- kukoa.

Inauterien zain

Beroketa lanak ederki eginak dituzte haur eta gazteek. Il- beltzaren 24an, 25ean eta 26an ospatuko dituzten inauterie- tarako prest daude.



Urte berria kantuan hasi zuten gaztetxoek. M. PETRIRENA



Abenduaren 29an Saioan eta ilbeltzaren 5ean Mendaurren izan ziren.



Frontenis txapelketako txapeldunak eta txapeldunordeak. M. PETRIRENA



Olentzeroren etorrera jendetsua. M. PETRIRENA



Abenduaren 25ean eskean ibiltzeko elkartu ziren gazteak. KOLDO HERRERA

Enplegu zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu ditu

Ingeles eta frantses ikastaroez gain, oinarritzko informatika ikastaroa antolatu dute hilabete honetan hasteko

TTIPI-TTAPA

Urte berriarekin batera, hainbat ikastaroren eskaintza egin du Doneztebeko Enplegu Zerbitzuak. Alde batetik, hizkuntzak ikasi nahi dituenak aukera bikoitza izanen du, ingeles eta frantses ikastaroak antolatu baititu. Bertzetik, oinarritzko informatika eskolak ere emanen dituzte.

Frantses ikastaroa

Urtarriletik martxora eskainiko dute frantses ikastaroa, Rosa Seminario karrikako seigarren zenbakian, oinarritzko mailan eta erdi-mailan. Joan den astean hasi ziren eta aste honetan eta ondokoetan izanen dute segida: 7an, 10ean, 13an, 17an, 20an, 24an, 27an eta 31n. Otsailan 17an, 21ean, 24an eta 28an bilduko dira eta martxoan 2an, 6an, 9an, 12an, 16an eta 27an.

Ingeles ikastaroa

Ingeles ikastaroa urtarrilaren 21etik maiatzaren 28ra izanen da eta Herrigunean eskainiko dute, astearte eta ortzegunetan. Mailaren arabera, bi taldetan banatuko dute: oinarritzko maila ikasi nahi dutenek 09:45etik 11:15era emanen dute eta erdi-mailakoek 11:15etik 12:45era.

Oinarritzko informatika

Informatika munduan oinarritzko urratsak egin nahi dituztenek ere horretarako aukera izanen dute urtarrilaren 14tik martxoaren 3ra. Saiok astearte eta ortzegunetan izanen dira, 17:00etatik 19:00etara.

Hiru kasuetan izena emateko enplegu bulegora hurbildu edo deitu 948 45 03 09 telefono zenbakira deitu behar da.



DONEZTEBE FUTBOL TALDEA

Manchester Titi nagusi areto futboleant

Aldi honetan ere arrakastatsua izan da Doneztebe Futbol Taldeak antolatutako Eguberrietako Areto Futbol Txapelketa. Eskualdeko 20 taldek parte hartu dute txapelketan eta horien artean argazkian ageri den Manchester Titi nagusitu da, finalean, Los Chicos del Anis taldeari irabazita.

Pilota partida ikustera joateko irteera hilaren 18an

Gazte Burrumba Kultur Taldeak antolatuta, urtarrilaren 18an esku pilota partidak ikustera joanen dira hainbat herritar Iruñera. 11:00etan autobusez aterako dira eta han bazkaldu. Arratsaldean, Iruñeko Labrit pilotalekuan binakako txapelketako partida ikusiko dute. Jaialdiko pilota partida nagusia Bengoetxea VI.a eta Mariezkkurrena II.ak Laso eta Albisuren aurka jokatu du tena izanen da. Besta luzatzeko aukerarik ere ez da faltako, herrira itzultzeko autobusa 03:00etan hitzartu baitute.

Ipuin txokoa eta film emanaldiak urtarrilean

Eguberrietako oporrak akitu ondotik, ipuin txokoa martxan da berriz ere. Hemendik aitzinera 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eta haien zaintzaileak asteartero bilduko dira, 11:00etan liburutegian, Haizea Loira gidari dutela.

Bertzalde, Erreka Guraso Elkarteak antolatutako film emanaldiak hilabete honetan segida izanen dute. Urtarrilaren 12an eta 26an eskainiko dituzte aurtengo lehenbiziko pelikulak. Lerro hauek idazterakoan ez zen filmak zein izanen diren jakiterik izan.



ERREKA KIROL ELKARTEA

Urtea kirola eginez agurtu dute

Erreka Kirol Elkarteak egindako deialdiari erantzunez, hainbat izan ziren abenduaren 31n Mendaurrera igo zirenak. Arratsaldean, berriz, jendetza elkartu zen Errekak antolatutako 14. San Silbestre lasterketan. 70 haur eta 160 helduk parte hartu zuten.

San Anton Eguna ospatuko dute urtarilaren 17an

Meza, luntxa, txokolate beroa eta dantzaldia izanen dituzte guztien gozamenerako

FERMIN ETXEKOLONEA

San Anton eguna ate joka da dagoeneko. Urtero bezala, urtarilaren 17an, hurrengo ostiralean, ospakizunak hartuko du herria.

Egitaraua

San Anton ermitan izanen den mezarekin hasiko dute eguna eta mezondoan bertaratzen direnek mokadutxo batzuk jateko aukera izanen dute ermita atarian.

Arratsaldean, 18:00 aldera, berriz, Udalak txokolate beroa eskainiko die herritarrei. In-



darrak hartu eta gorputzak berotuta, dantzarako tarteak izanen dute. Joxe Angel akordeoilariak izanen du herria girotzeko ardura, iluntzeko 21:00 arte.

Sorospen ikastaro interesgarria izan dute herrian

Abenduaren 17an ludotekan egin zuten sorospen tailerrak herritarrengan interes handia eragin zuen. 14 lagun bertaratu ziren. Cristina eta Elena erizainek herritarren kezak argitu zituzten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Minbizia duten haurrei elkartasuna adierazi diete

EITB maratoiarekin bat eginez, 'Lau teilotu' kantatu zuten abenduaren 8an. 50 lagun inguru bildu ziren. Joareekin abiatutako bideoari, gitar doinuen erritmoa eta herritarren ahotsa gehitu zitzaizkion.



IZASKUN ZUBIALDE

Olentzero eta Mari Domingiren bisita

Urtero bezala, Mari Domingik etxez etxe gutunak jaso zituen abenduaren 20an. Horiak irakurrita, abenduaren 24an, Olentzero lagun zuela, herritarrek bisitatu zituen. Arratsaldean opari bana utzi zien herriko gaztetxoei eta gauean etxe gehienetan ibili ziren.



INES GEREKA

Plazaren mendeurren festa bideoan

Herriko plazaren mendeurren ospakizuneko irudiak bilduz, herritar batzuek bideo bat egin dute. Abenduaren 22an egindako lana ikusteko gonbidapena luzatu zieten herritar guztiei. Emanaldiaren ondotik mokadutxo batzuk jateko bildu ziren.

Eguberrietako ospakizunen ondotik inauteriei begira

Olentzeroren etorrerarako etxe bat egin zuten auzolanean. Errege bezperan joaldunak izan ziren protagonistak

ARKAITZ MINDEGIA

Ederki pasatu dira Eguberrietako bestak gurean ere. Eguberri bezperan arratsaldean Aurtitzen eta Iturenen kantari ibili ziren haurrak. Ilunabarrean ongietorri polita egin zitzaion plazan Olentzerori. Musuak eta besarkadak hartzeko aterpe polita egin zuten herritarrek auzolanean. Joaldunek argitu zioten bidea ikazkinari.

Urteari agurra eta hurrengoari ongietorria egin zieten. Errege bezperak ez zuen hutsik egin. Arratsaldean gaztetxoek



Olentzerori harrera beroa egin diote.

joare soinuak izan ziren nagusi eta gauean afaria egin zuten. Gauean helduen txanda izan zen. Besta handi horiek pasatuta, inauteriei begira hasiak dira.

Joaldunak Arrasaten, Oreretan eta Elizondon

Eguberrietan joaldunak batean eta bertzean ibili dira. Iturengo joaldunak abenduaren 22an Arrasaten izan ziren. Joaldun txikiak biharamunean Oreretara joan ziren. Aurtizko joaldunak, Olentzeroren ongietorrian eta Errege kabalgatan, Elizondon, izan zuten zita.

Eguraldiak kalteak eragin ditu bide eta teilatuetan

Abendu erdialdean izandako haize bolada bortitzek eta euriteek kalteak eragin dituzte herrian eta inguruan. Bideetan zuloak eta erortzak eragin ditu. Horrez gain, Mendaurreko Trinitate ermitan teilatuko teilak eta barrenak harrotu dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Kristoren besta Pulunpa eskolan

Maila bakoitzeko ikasle eta irakasleek mimoz prestatutako kanta eta dantzez girotutako besta egin zuten abenduan eskolan. Gurasoak emanaldia ikustera joan ziren. Ikuskizunaren ondotik gosaria eta Guraso Elkarteak antolatutako zozketak izan zituzten.

Herritarrak bikain Eguberrietako Areto Futbol Txapelketan

ARKAITZ MINDEGIA

Doneztebe Futbol Taldeak antolatutako Eguberrietako IX. Areto Futbol Txapelketan herritarrek osatutako Anis Saint Germain taldeak parte hartu zuen. Final-laurdenetara ailegatu ziren lan ederra eginez. Zorionak!



Txapelketan aritu den taldea.

Bertako sagarrekin egindako sagardoa



SAGARDOTEGIA

250 lagun eserita Klimatizaturia

Sagardotegiko menua

Meaka auzoa 102 · 20304 IRUN · T. 943 623 130

www.olasagardotegia.eus

TXOTX
DENBORALDIAREN
IREKIERA:
URTARRILAK
19

IBARBURU
GASOLIOA ETXERA

KALEFAKZIOA · NEKAZARITZA · AUTOMOBILGINTZA

T. 610 258 595

Vicente Arocena Andueza

Iruña-Irun Errep. 48,5 km. 31740 DONEZTEBE

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Mozorroak soinean dituztela arratsaldean etxex etxe ibiliko dira.

Hilaren 18a inauteri eguna izanen dute Eratsunen

Arratsaldean Aitor Mendiluze eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin etxex etxe ibiliko dira

TTIPI-TTAPA ERATSUN

Joan den urtean bezala, aurren ere egun bakarrean ospatuko dituzte inauteriak Eratsunen. Ilbeltzaren 18an egin dute hitzordua eta haur, gazte eta helduek izanen dute gozamenako tartea.

Eguerdian bazkaltzeko bilduko dira eta ondoren, mozo-

roak jantzita, herritarrek Aitor Mendiluze eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin etxex etxe ibiliko dira.

Gauex berriz ere mahaiaren bueltan bilduko dira. Bertso-larien kantuz alaitutako afaria eginen dute eta aspalduko ohiturari eutsiz, Bankako Menditarrek ere gonbidatu dituzte.



JAIONE ARIZTEGI

Olentzero Urrozen ere izan da

Hutsik egin gabe Olentzero Urrozen izan zen abenduaren 24an haurrek eskatutako opariak ekartzeko. Urtero bezala, ilundu ondoan iritsi zen herriko plazara baina ordua ailegatu bitartean haurrak etxex etxe kantuan ibili ziren. Kantari aritu ondotik, merienda ere izan zuten herriko etxean.



IZASKUN ZUBIALDE

Mari Domingi Saldiasko eskolan

Saldiasko Otsonta eskolako ikasleak ederki portatu zirenez, Eguberrietako oporrak hartu aurretik Mari Domingiren bisita izan zuten abenduaren 20ko goizean. Ez zen esku hutsik hurbildu, Olentzerok emandako opariak eraman baitzituen eskolara.

Berdintasunari Konta eta Kanta tailerra Ezkurran

Abenduaren 6an berdintasunari kontu eta kanta ibili ziren Ezkurran. Tarte atsegina pasatuz, Haize Loirarekin berdintasuna lantzeko aukera izan zuten eta txokolatea goxoa hartuz eta denen artean asmatutako abestia kantatuz borobildu zuten arratsaldea.



Haurrak Haizea Loirarekin. J. ZABALO



JAIONE ZABALO

Jubilotekakoen topaketa Ezkurran

Elkar ezagutu edota harremanak sendotzeko asmoz, Sunbilla, Doneztebe, Zubieta eta Ezkurako jubilotekako kideek urteroko topaketa egin zuten abenduaren 19an Ezkurran. 40 bat lagun bildu ziren. *Hator hator* kantatu ondotik, bingoan aritu ziren. Opariak jasota, gosari eder bat ere egin zuten.

Urtarrilaren 17tik 19ra inauteriak Elgorriagan

Larunbat arratsaldean zirkua gaiari lotutako mozerroak janzteko deia egin dute antolatzaileek

TTIPI-TTAPA ELGORRIAGA

Urtarrilaren 17an, ortziralea, hasiko dituzte Elgorriagan inauteriak. 20:00etan Oihana eta Irati trikitilariak herrian buelta emanen dute eta 21:00etan kantu zaharren afaria egingen dute.

Biharamunean, 09:00etan gosaltzeko bilduko dira Herriko Ostatuan. 10:00etan puskak biltzen hasiko dira gazteak, etxez etxe, Beñat akordeoilariarekin. Adierazi dutenez, aurten ez dute bazkaririk egingen, eta horren partez, nahi duten etxeetan jatekoa aterat-

zeko proposatu dute, «horrela, puska biltzea luzatu bitartean bazkalduko dugu». 18:30ean, zirkuari lotutako mozerro besta hasiko da eta 21:00etan bertso afaria antolatu dute Herriko Ostatuan, Joanes eta Xabat Illarregi anaiekin.

Igandean, hilak 19, 10:00etan Herriko Ostatuan gosaldia ondotik, 11:30ean mozerroen desfilea egingen dute eta aldi berean, zozketa, Oihana eta Irati trikitilariak girotuta. 13:00etan luntxa eskainiko dute eta 16:00etan mus txapelketa hasiko da.



Eskean ibili ziren Artzeko neska-mutilak Lukas panpinarekin. AMAIA ODRIÓZOLA

Urteberri eguneko eskearekin hasi dute urtea Donamariako neska-mutikoek

TTIPI-TTAPA DONAMARIA

Lagunartean eta giro ederrean hasi dute 2020a Donamarian. Ohiturari eutsiz, herriko neska-mutikoak elkartu eta etxez etxe eskean ibili ziren urtarrilaren 1ean. 11:00etan komentuan egin zuten hitzordua eta mojek antolatutako bingoan ari eta opariak jaso ondotik,

auzoka banatu eta eskean ibili ziren.

Ez ziren eguneko protagonista bakarrak izan. Izan ere, haurren minbizia ikertzeko dirua biltzeko herriz herri dabilen Lukas panpina Donamarian izan zen urteberri egunean eta hainbat herritarren eskutatik pasatu zen.



PROMOCIONES
MALERREKA

Informazioa: **629 951 170** (Aitziber)



**AUKERA
BIKAINA
Sunbilla!**

9 ETXEBIZITZA:

115m² arteko etxeak

3 atiko

**3 edo 2 logelakoak,
sukaldea, egongela,
2 bainu, trastelekuak
eta lurpeko garajeak**

Lokal komertzialak



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



✓ Zure beharren arabera finantziazioa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



Zehazki, konposta egiten dutenei %20ko hobaria aplikatuko diete Malerrekan.

Deskontua konposta egiten duten erabiltzaileei

Organikoak konpostatzeko kanpaina abiatu du Malerrekako Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Planean ezarritako helburuak lortzeko bidean, Malerrekako Mankomunitateak hondakin organikoak konpostatzeko kanpaina abiatu du. Planak, bertzeak bertze, hondakin gutxiago sortzea du helburu: 2020an %10 gutxiago eta 2027an %12 (2010eko datuekin alderatuz) eta organikoaren bilketa %50ekoa izatea 2020an eta %70ekoa 2027an.

Malerrekako Mankomunitatetik adierazi dutenez, «Malerrekan helburu horiek bete nahi baditugu, aspalditik bereizten diren frakzioez gain (ontzi arinak, papera eta kartoia eta beirazko ontziak), organikoa bereiztea ere ezinbertzekoa da. Etxeko zabor poltsaren %45a hondakin organikoa izaten da eta errefusaren edukiontzira botatzen bada, zabortegira doa zuzenean, orain Tuteraraino».

Oroitarazi dutenez, hondakin organikoak ura du elementu nagusi (%80a). «Beraz, errefusaren edukiontzira botatzen badugu, milaka ur tona alferrik zabortegira garraiatzen ari

gara». Zabortegietako hondakin organikoen deskonposaketak «metano isurketa kaltegarriak eragiten» dituela ere azaldu dute: «metanoa berotegi efektuari dagokionez, CO2 baino 25 aldiz kaltegarriagoa den gas bat da». Aitzitik, «konposta egiteko erabiltzen bada, ordea, ez da gas isurketarik gertatzen eta kalitatezko ongarria lortzen da».

Organikoa kudeatzeko «modurik onena konposta egitea» dela argi dute Mankomunitatean. Hala, «lursail bat dutenei etxeko konposta egiteko edo bertzela, auzoko konpostean parte hartzeko» deia egin dute. «Materiala Mankomunitatean eska daiteke eta doakoa da». Gainera, konposta egiten dutenei tasan %20ko hobaria aplikatuko zaie.

Kanpaina honekin, Mankomunitateko datu basea eguneratu nahi dute; auzo konposta egiten duten baina erregistratu gabe dauden erabiltzaileen datuak bildu nahi dituzte, haiei ere tasan %20ko deskontua aplikatuz. Gisa berean, erabiltzaileei beharrezko ekipamendua eskaini nahi diete.



OLATZ MUTUBERRIA

Narbarten ere Olentzero bisitan

Menditik jautsi orduko, akordeoi eta pandero soinuekin ongiatorri ederra egin zioten abenduaren 24an narbartearrek Olentzerori. Musika lagun, herrian barna ibili ondotik, plazan tikienei opari bana eman zien eta akitzeko, merienda eskaini zuten. Biharamunean, berriz, jaiotza biziduna egin zuten.



MIREN URRIZA

Abenduko ospakizunak Legasan

Hainbat hitzordu izan zituzten abenduan Legasan. Alde batetik, abenduaren 7an, Euskararen Eguna ospatu zuten, eta hilaren 24an, berriz, herri ingurua kantuz alaitu zuten herriarrek. Ondotik, astoa lagun zutela, Olentzero eta Mari Domingiren bisita jaso zuten.



BIRZIKLATZEN DUZUNEAN AIREA GARBI MANTENTZEN LAGUNTZEN DUZU

BIRIKEKIN PENTSATU

BIRZIKLATU



LATAK, BRIKAK
ETA PLASTIKOZKO
ONTZIAK

BIRZIKLATZEN DUZUN
PLASTIKOZKO
BOTILA BAKOITZEKO

10 MINUTUKO
KUTSADURA
ARINDUKO DUZU



 Baztango
Udala

 Malerrekako
Mankomunitatea

 Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

 ecoembes
Elkarlanaren indarra

Sagardotegira joateko izen-ematea laster irekiko dute

Donostiara egingen duten irteerara joan nahi dutenek urtarrilaren 20an, 21ean edo 22an eman dezakete izena

PABLO IRASTORTZA

Nahiz eta irteerak eta bidaiak beranduago izan, izen-emateak aitzinetik egin behar direnez, elkartekoek interesa dutenei erne egoteko eskaera egin diete.

Urtarrilaren 30ean egitekoa duten sagardotegi bazkarira-

ko, adibidez, heldu den astelehen, astearte eta asteazkenean, urtarrilaren 13an, 14an eta 15ean, eman behar da izena. Otsailaren 20rako iragarria duten Donostiara irteerarako, berriz, urtarrilaren 20an, 21ean eta 22an apunta daitezke.

Arantzako ordezkariak ordezkaritza lana utzi du

PABLO IRASTORTZA

Hainbat urtez elkartearen Arantzako ordezkaria izan den Maria Dolores Iturria Mazi-ziorrek utzi egin du herriko delegatu lana. Hortaz, elkartek borondate onez egin duen lana «bihotz-bihotzez» eskertu nahi izan du.

Aurrerantzean, bertze kide batek hartu beharko du bere lekua. Ordezkaria izateko izena eman nahi dutenek martxoaren 12ra arteko epea izanen dute. Doneztebeko bulegoko telefonoetara deitu beharko dute (948 45 08 78 edo 618 56 78 37).



Buletinean bilduta daude lehendabiziko sei hilekoko irteerak. ARTXIBOKOA

Urteko balantzea egin eta 2020ko buletinak banatu dituzte

PABLO IRASTORTZA

Iragarria zegoen bezala, abenduaren 20an, Doneztebeko egoitzan 2019ko bigarren asanblada orokorra egin zuten. Urteko balantzea aztertu zuten herrietako 35 delegaturen parte-hartzeekin. Bilkurarekin hasi aitzinetik, ongietorria egin zitzaizen, beraien lana eta konpromisoa eskertuz. Bereziki, Zugarramurdiko ordezkari berria den Gurutze Azkarateri eman zizkioten eskerrak, erakutsitako ardura eta borondatearengatik.

Ekainako azken akta irakurrita, presidenteak elkarteko

egoera ekonomikoa azaldu zuten. Segidan, azken seihilabetekoan egindako ekintzen berri eman zuten. Ondotik, 2020rako prestatuak eta aurreikusitako dauden bidaiak, kirol eta formakuntza ikastaroak, lehiaketak, mendi irteerak... izan zituzten hizpide.

Ordezkariari 2020ko lehenengo seihilabeteko aferak erakusten dituen buletinak banatu zitzaizkien, elkarteko kide guztien eskuetara lehenbailehen zabaltzeko asmoz. Azkenik eskariak egiteko eta zalantzak argitzeko tartea egin zuten.



PABLO IRASTORTZA

Urte bukaerako mendi buelta Beran

64 mendizale bildu ziren urteko azken mendi bueltan Beran. Larhun mendia lainoan zenez, ezin izan zuten joan-etorria egin. Hortaz, Ramon Tapia eta herritar kideen gidari, eskola ataritik abiatu eta Santa Barbaran barrena Matxibordatik jeitsi ziren, lau orduko ibilbidea osatuz. Santa Barbaran, Taillon mendian hil zirenen omenez, *Txoriak txori* kantatu zuten.



Abenduaren 16an Elgorriagan agerraldia egin zuten eskualdeko hainbat herritarrek.

Greba orokorrarekin bat egiteko deia egin dute eskualdean

Lan, pentsio eta bizitza duina aldarrikatzeko greba orokorra deitu du Eskubide Sozialen Kartak urtarrilaren 30erako

TTIPI-TTAPA

Lan, pentsio eta bizitza duina aldarrikatzeko greba orokorra deitu du Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak urtarrilaren 30erako eta deialdiarekin bat eginez, Baztan-Bidasaldeko hainbat herritarrek grebarako deia egin zuten abenduaren 16an Elgorriagan egin-dako agerraldian.

Grebarako deialdi ofiziala kartako kide diren sindikatuek egin dute: ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde, EHNE eta Hiruk. Baina hainbat eragilek bat egin dute deialdiarekin: ikasle mugimendua, Ernai, Euskal Herriko Mugimendu Feminista, SOS Arrazakeria, Sustrai Eraikuntza... Pentsiodunen deiari erantzunez deitu dute greba. Bi urte daramatzatelako karrikan, astero mobilizatzen, eta «jauzi kualitatibo bat emateko beharra» planteatu dutelako, «borroka horretara bertze kolektibo batzuk biltzeko deituz». Horri lotuta, «konbentzimendu hirukoitza» dutela oroitarazi dute: «pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bertzetik, lan baldintza duinen

aldeko borroka ezinbertzekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira».

Argi dute «bertzelako eredu sozio-produktibo eraiki» behar dela, «bizitza erdigunean jartzeko, zaintza eta planetaren jasangarritasuna lehenetsiz». Eredu horren ardatz nagusiak «sektore publikoaren lidergoa, aberastasunaren birbanaketa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normaltasuna eta lurraldeen arteko oreka» direla diote.

Gisa berean, «krisiaren aitzakian azken hamarkadetan azkartu den lan eta bizi baldintzen prekarizazioari mugak jarri» nahi dizkiete, eta hainbat aldarrikapen egin dituzte: erretiroa 65 urterekin hartzea eta 30 urte kotizatuz gero, erretiro aurreratua 61 urterekin hartu ahal izatea; pentsioa kalkulatzeko 15 urte hartzea kontuan; 1.080 euroko gutieneko pentsioa; gizon eta emakumeen arteko soldata- eta pentsio-arrakalak amaitzea; hileko 1.200 euroko gutieneko soldata; lanaldia 35 ordura jaitea soldata murriztu gabe; etxeko eta zaintza lanak duintzea...

Eguberri gauean Lur aretoan izandako eraso salatatu du Bertan elkarteak

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Abenduaren 25eko gauean, Elizondoko Lur aretoa jendez betea zegoela, norbaitek argi-koadroa hautsi eta fusibleak soltatu zituen, eta arazoa agudo konpondu bazuten ere, berriz argirik gabe gelditu ziren, norbaitek argi-koadroko fusibleak lapurtu zituelako. Horren ondorioz, aretoa geldiarazi behar izan zuten eta horren harira, «amorrua eta pena» sentitu zituztela adierazi dute Lur aretoko ardura-dunek. Zerbitzariak, ordea, lanean segitu zutela kontatu dute, «eta bitartean lantaldeak eta guztiz eskertuak gauden hainbat boluntariok arazoa konpondu zuten». Ez zen luzerako izan, «15 bat minuturen buruan areto guztia argirik gabe gelditu zen, argi-koadroko fusibleak lapurtu zituztelako, eta horren ondorioz, izotz-makina eta laneko tresna guztiak gelditu ziren».

Horren ondotik, «zerbitzatzaren ari zirenek aretoan ongi pasatzera joanak zirenen aldetik jasotako tratua inhumanoa» izan zela salatatu dute:

«zerbitzatzaren ari baginen ere, gu ez gara morroiak, ez gara bertzeak baino gutiago, eta ez ginen egoera desatsegin haren erantzuleak izan». Argi eta garbi utzi nahi izan dute «pertsonek» direla, eta «gutierrez, guk zuei dizuegun errespetu bera merezi dugula». Horregatik, «onartezintzat» jo dituzte «zerbitzatzaren edo lanean ari zirenek jaso zituzten irainak, oihuak edo bota zizkieten hormak, edalontziak eta gainera-koak». Orokorrean, «enpatia eta heziketa falta izugarria» salatatu dute. «Ironikoa da Eguberri Egunean gertatu izana, lan gehien egiten den egunean eta Lurren dagoen bestarik handienean». Lanetik «amorrua eta pena» sentituz atera zirela ere gaineratu dute. Akitzeko, barkamena ere eskatu nahi izan diete «gure aldetik egokia ez zen komentarioren bat aditu zuten bezeroei».

Bertan elkarteak Eguberri gauean gertatutakoa salatatu eta kaltetuak izan zirenei «animoa eta laguntza» eskaini nahi izan diete, «gauz hauek ezin direlako onartu».

Jasangarritasunaren Europako proiektu baterako hautatu dute Plazolako Bidea

TTIPI-TTAPA LEITZALDEA

Plazaolako trenbidea *TrailGazers* BID Europako programaren sei bidexka pilotuetako bat izango da. Datozen hiru urteetan, elkartutako hamar eskualdeei (tartean, Nafarroari) teknologia eta esperientziak partekatzeko aukera emango die, gune naturalen eta haien populazioen jasangarritasuna lortzeko bidean aurrera egiteko.

Plazaolako proiektua beste herrialde batzuetan, hala nola Irlandan, Portugalen, Erresuma Batuan edo Frantzian,

hautatutako sei proiektuetatik luzeena da. Guztira 63 kilometro ditu, eta Lursarea agentzia du buru, Red Explorarekin harreman estuan, Nasuvinsa sozietate publikoak jakinarazpen batean adierazi duenez.

Proiektuari esker, «azpiegituretako eta egokitzapeneko inbertsioen itzulera sozio-ekonomikoa neurtu ahal izango da, eraginkortasun handiagoko irizpideak zehazteko» eta, gainera, «natur gune horien erabilera hobekuntzak aztertzea ahal izango dira, teknologia berriak erabiliz».

Beheko landako bidea konpontzeko lanak hastear

Basakaundin udaberrian landaketak egiteko ingurua prestatzen hasiak dira

TTIPI-TTAPA

Bide horretan ibili den edonor oharitu izanen da zein egoera txarrean dagoen lurra. Konpontketak aspaldi egitekoak baziren ere, hainbat alditan ez da lehiaketara inor auzetu eta ondorioz gaur egun zuloz beteta dago gasolinera aurreko bide zatia. Azkenean Apezetxea Anaiak enpresak eginen ditu pabimentazio lanak. 111.622,13 +BEZ eurokoa da esleipen prezioa eta 2020ko urtarrilaren 20tik aurrera hasitekoak dira. Martxo ingurura ko bukatuak behar lukete lanek.

Urte berriarekin batera, Basakaundin ere mugimendua nabaritu da. Berdabio basogintza S.L. enpresako langileak parajea prestatzen hasi dira udaberri aldera hainbat espeziezko zuhaitzak landatzeko. Gerezia eta bertako haritza, zedro japoniarra, Taeda pinua eta Atlaseko zedroa landatzeko asmoa dute. 24,49 hektareatan eginen dituzte landaketak. Zati handi batean lanek guztiz eskuzkoak izan behariko dute eta aurrez sastrakak kendu eta lurra garbitu behariko dute.



F. LOIARTE

Urtero hutsik egiten ez duen bisita

Panpinak goizean eta hezur eta haragizkoak iluntzean. Olentzero eta Maridomingi herrian izan ziren abenduaren 24an. Goizean, haur eta gaztetxoak kantuan ibili ziren panpinak bizkarrean zituztela. Iluntzean, berriz, Olentzero eta Maridomingi etorri ziren opariak banatzera.



UTZITAKOA

Kantu batean bilduta, elkartasun keinua

246 ohe huts ekimenarekin bat eginez, Goizuetan ere euskal preso, iheslari eta deportatuaren alde Hertzainak taldeak duela hogeita hamar urte sortutako 564 kanta abestu zuten Eguberri bezperan. Lagun kuadrilla polita bildu zen etxetik urrun daudenak gogoan izateko.



F. LOIARTE

Juanita Lujanbio omendu du abesbatzak

Umore Ona abesbatzako kideek eta haurrek Gabonetako kontzertua eskaini zuten abenduaren 15ean. Aurrekoa ere dantzatu zuen Patxi Iribarrenek elizan eta Umore Ona elkartearen egin zen bazkariaren ondotik Juanita Lujanbiori oroigarri bat eman zion abesbatzak, egiten duena eskertuz.

Oinarritzko informatika ikastaroa hasiko da urtarrilaren 14an

TTIPI-TTAPA

Nafar Lansarek hogeita hamar orduko informatika ikastaroa antolatu du. Urtarrilaren 14tik martxoaren 3ra eskainiko dute, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara, eskolako informatika gelan. Oinarritzko informatika eta Inter-

neteko nabigazioa erakutsiko dituzte ordenagailuetako zein mugikorretako erabilerarako. Doneztebeko Enplegu Agentziara deitu beharko da izena emateko eta baldintza bakarra lan egiteko adinean egotea izanen da. Langabetuek lehen-tasuna izanen dute.

Saneamendu sarea hobetzeko lanak egiten ari dira

Saneamenduko hodiak barrutik berrituko dituzte herriko kaleak ahalik eta gutxien urratzeko

OHIANA KALPARSORO

Joan den urteko abenduan hasi zituzten saneamendu sarea hobetzeko lanak eta ur-tarrila eta otsaila bitartean bukatzea aurreikusten dute. Lehenengo fasean Udalak Goiko Herriko eta Beheko Herriko saneamendua konpon-

tzeko lanak egiten ditu eta Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako proiektua izanen da. Udazkenean Nilsak bigarren faseari ekinen dio, herriko bi zonaldeen arteko lotura berritu eta saneamendu obrei bukaera emateko depuradora berri bat ere eraikiko dute.

Filma, afaria eta Atopia rol jokoaren estreinaldia

Abenduaren 21ean hitzordu hirukoitza izan zuten aranoarrek. Napartheid filma ikusi, lagunartean afaldu eta Atopia rol jokoan aritu ziren gero. Atopia jokoaren egileen artean hainbat herritar daude.



UTZITAKOA



J. RUIZ

Kantu eskean, giro ederrean

Olentzeroren etorrera ospatzeko kantu eskean ibili ziren aranoarrek abenduaren 24an. Herritarren belarriak goxatu zituzten koplekin eta baita Euskadi Irratiko entzuleenak ere. Faktoria saioko kazetariak bisita egin zuten herrira eta irratian zuzenean eman zituzten koplak.



E. IRAOLA

Kantuz goxatu dute herria Eguberrietan

Gabon kantak ezpainen eta urduritasuna gorputzean zutela ibili ziren Aresoko haurrak abenduaren 24an. Goizean etxez etxe ibili ziren kantuan eta gauean hiru abesti eskaini zizkieten plazan Olentzerori. Ikazkinak trukean opariak banatu zituen.

Guraso Elkarteko saskiaren jabea ez da agertu

Guraso Elkarteko kideek urtero Eguberrietan zozketatzen duten saskia 6.590 zenbakia-ri egokitu zaio. Oraindik ez da agertu txartelaren jabea. Boleto irabazlearen jabeak urtarilaren 22ra arteko epea izango du Guraso Elkarteko kideei saria eskatzeko.

Mendian federatze-ko laguntzak eman dituzte aurten ere

Aresoko Mendi Taldean federatzen diren herritarrek Kirol Mankomunitateak ematen duen %10eko beherapena eskuratu ahal izango dute federatu txartela egiterakoan. Modalitatea aukeratu, fitxa bete eta ordainketa egin beharko dute interesa dutenek.

Emakumeen Urrezko Aizkolari Txapelketan ariko da Itxaso Onsalo

Urtarrilaren 5ean jokatzekoa zuen Deban Itxaso Onsalo herritarrek Emakumeen Urrezko aizkolari txapelketako lehenengo norgehiagoka, Nerea Sorondo beratarra aurkari zuela. Hurrengo saioa, larunbatean, urtarilaren 12an izango du Beizamako kiroldegian 12:30ean hasita. Irati Astondoaren aurka ariko da.

Pasa den urtean ere hainbat txapelketetan aritu zen Onsalo. Arpanan Nafarroako eta Euskal Herriko txapeldun izan zen banaka zein bikoteka eta abenduaren 21ean San Tomas



Sorondo eta Onsalo lagunekin.

egunean jokatu zuten Emakume Aizkolarien Urrezko Kopan laugarren egin zuen. Lagunen eta herritarren babes goxoa izan zuten aizkolariek (argazkian).

Geltokiko biltegiko berritze lanak bukatu dituzte

Udalak geltokiko eraikinen zesio eskaera ere egin dio Nafarroako Gobernuari

JM BARRIOLA

Leitzako Plazaolako geltokiko biltegi zaharrari erabilera berria emateko proiektua jarri zuen martxan 2019ean Udalak. Egin beharreko lanak bukatu dituzte eta beheko solairua berrantolatu eta hainbat zerbitzu bilduko ditu eraikinak: komunak, bizikletentzat tailerra... Teilatupean beste solairu bat ere egokitu dute eta fatxadak moldatzeaz gain, igeltseritza, elektrizitate, argiteria, pintura, iturgintza eta zurgin lanak ere egin dituzte. Obrak Apezetxea Anaiak, S.L. enpresak egin ditu.

Lan hauek bukatuta, erabilerari begira jarri da udala eta horretarako, estazioko eraikinen zesio eskaera bideratu dio Nafarroako Gobernuari, ondoren bertan proiektu zehatzak egiteko gaitasuna izateko.



Geltokia txukundu ondotik.

Tuneletan berrikuntza lanak
Geltokikoa ez da izan Plazaolako Bide Berdearen bueltan pasa den urtean egin duten hobekuntza bakarra, egoera txarrean zeuden hesiak berritu dituzte, 355 poste eta 347 zeharraga berri jarri dira. Aurtikeneko eta Malkorreko tuneletako sarreretan hainbat hobekuntza lan egin dituzte eta luiziak saihesteko hormigoiarekin indartu da pareta aipatutako bi tunel hauetan.



I. PERURENA

Urteko azken itzulia herri inguruan

Mendibil Mendi taldekoek herri inguruan itzulia egin zuten abenduaren 28an. Urtea borobiltzeko lau ordu inguruko itzulia osatu zuten, Zuparrobi eta Kornietako gainetara igo eta handik herrira itzuliz. Ondoren, bazkaria izan zuten Orain elkartearen eta argazki-emanaldia bazkalondan.

Haur parkeetan hobekuntza gehiago iragarri ditu Udalak

Joan den urtean hasitako bidetik segiz, haur parkeetan hobekuntzak egiteko asmoa du udalak. Eskolako parkeko zuhaitzen eremuan jolaserako zenbait elementu jarriko dituztela iragarri dute eta Patxi Arrazolakoan tirolina bat.

Desfibriladorea jarri du Udalak turismo bulegoaren atarian

Plazako turismo bulegoaren atarian desfibrilagailua jarri du udalak segurtasun sarea osatzeko: kiroldegian eta eskolan badute bana eta suhiltzaile boluntarioek mugikorra. Hauez gain, Osasun Etxean eta paper-lantegian ere badute desfibriladore bana.



UDALA

Tradizioak eta berrikuntzak bat eginin Orantzaroan

Abenduaren 24an, goizean, haur, gaztetxo eta gurasoak kantuan ibili ziren kaleak alaituz. Iluntzean Orantzaro, Maimur, Basajaun eta gaueko pertsonaiek eta Aurrerako dantzariak hartu zuten plaza neguko solstizioa ospatzeko.

Sodade musika taldeari laguntzeko kanpaina abian

Duela urtebete inguru sortu zen herrian Sodade musika taldea eta konposatu dituzten zazpi abesti kuttunenak aukeratuta diskoa grabatu nahi dute orain. Proiektua aurrera eraman ahal izateko, kanpaina abiatu dute. Diskoa aurrez erostea proposatu dute, 170 saltzen badituzte estudioko eta diseinuko gastuak ordaintzea lortuko baitute. Torrean, Peritzan eta Maimurren egin daiteke eskaera hamar euroren truke. Informazio gehiagorako idatzi sodadetaldea@gmail.com helbidera.



Gizarte Zerbitzuetako eta udaletako ordezkariak. UDALA

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea saritu dute

2016an Arano eta Goizuetan martxan jarri zuten *Butantxo. Zaintzeen Herria* proiektuagatik eman diete saria

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen artean banatzen duten Kalitatearen XII. saria eskuratu du Arano, Areso, Leitza eta Goizuetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak. Abenduaren 13an Nafarroako Jauregian egindako ekitaldian jaso zuten saria Unai Miranda Goizuetako alkateak, Maialen Apezetxea zinegotziak eta Leitzako Udaleko zinegotziak diren Maialen Morenok eta Saioa Sagastibeltzak.

2016an Arano eta Goizuetan martxan jarri zuten *Nafarroako Butantxo. Zaintzeen Herria*

proiektuagatik eman diete saria. Himalayako mendilerroan dagoen Butan herrialdearen eta Arano eta Goizuetaren artean hainbat antzekotasun daudela ikusita, auzokideen arteko tratatu onak bultzatu eta pertsonen arteko harremanak sendotzeko, Butango bizi-filosofian oinarri-

GIZARTE ZERBITZUEN KALITATEAREN XII.SARIA ESKURATU DU

tzen den proiektua jarri zuten martxan Urumealdean.

Herritarrei eskerrak

Saria jasotzerakoan eskerrak eman eta herritarren inplikazioa nabarmendu zuten udal ordezkariak: «proiektu honek Goizuetako eta Aranoko eragile sozial guztiak inplikatu dira. Modu kooperatiboan lan egin dugu, bakoitzak bereetik emanaz eta esperientziak trukatu. Guretzat hori da lan egiteko modu bakarra». Proiektu honekin izan dituzten emaitzekin gustura daudela ere aipatu zuten eta gaineratu: «lan honek bere emaitzak eman ditu, baina garrantzitsuen prozesuan sortu diren harremanak dira».

30 urte dituen zerbitzua

Leitza, Goizuetako, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak aurten beteko ditu 30 urte. Lau herrietako bizilagunen bizi-kalitatea eta ongizatea bermatzeko helburuarekin sortu zen eta gaur egun, profil profesional ezberdineko hamabost langile ari dira bertan lanean. Hasieran, harrera eta gizarte-orientazioa eskaintzen zituzten, baina egun, doako zerbitzu publikoa eta komunitarioa eskaintzen dute: tartean, norberaren autonomia sustatzeko programa eta mendekotasun-egoeran aurkitzen diren pertsonak artatzeko eta gizarteratzeko programak dituzte.

Eneko Saralegi hirugarren mailako txapeldun

Abenduaren 14an Otxandion jantzi zue txapela Eneko Saralegi herritarrek. Lehia estua izan zuen Ioritz Gisasola bizkaitarrarekin, baina azkenean minutu erdiko aldea atera zion. Hirugarren mailako aizkolarien txapelketa irabazita, bigarren mailan ariko da aurten.



Saralegi txapelarekin. UTZITAKOIA

Inauteriak ilbeltzaren 24tik 29ra izanen dira

Eguberrietako argiak itzali orduko, inauterietako mozerroa prestatzen hasteko garaia da. Aurten ilbeltzaren 24an hasi eta 29an bukatuko dira inauteriak. Haurren desfilea, eskea, karrozak... kolorez beteko dira kaleak. Xehetasun guztiak heldu den aldizkarian.



PASSIVHAUSS ETXEAK LEITZAN

- Babesturiko etxebizitzak salmenta zuzena.
- Hiru logelako azkeneko bi etxebizitzak salgai.

Informazioa eta erreserbak: 609 130 555



Martirena idazleak eta Soto zein Untxalo bertsolariek eskainiko dute. ONDIKOL

Bertso-saio literarioa Elizondon ilbeltzaren 12an

Heldu den igandean dute literatura eta bertsolaritza uztartzen dituen hitzordua, Arizkunenea kultur etxean, 19:00etan

TTIPI-TTAPA

Baztandarrek bertsoari eta literaturari tarte egingen diote urtarileko bigarren igandean. Izan ere, Udaleko Kultur Batzordearen eskutik, Legasako Dani Martirena idazleak eta Iturengo Alazne Untxalo eta Gorritiko Julio Soto bertsolariek eskainitako bertso-saio

literarioa antolatu dute. Bertaratzen direnek sormen lan ederrez gozatzeko aukera izanen dute. Elizondoko Arizkunenea kultur etxean izanen da emanaldia. Arratsaldean, 19:00etan, hasiko da eta nahi duenak musu-truk ikusi ahal izanen du, ez baita sarrerarik ordaindu beharko.



UTZITAKOA

Grabaketak egiteko platoak prest

Abenduaren 13an inauguratu zituzten Lekarozko Meliton zinema estudioak. Nafarroako lehendabiziko zinema plato horiek sormen sektorea bultzatzeko eta bailaran egiten diren enpresa ekintzak dinamizatzeko balioko dutela adierazi zuten inaugurazio ekitaldian.

Bailableak igande eguerdian Erratzuko plazan

Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaiteroak antolatu-ta, muxikoak, jotak, larrain daintza... dantzatzeko aukera izanen dute ilbeltzaren 12an, heldu den igandean, Erratzuko plazan (euria ari badu frontoi estalian). 12:30ean hasiko dira.

Mus Txapelketako kanporaketa igandean Elizondon

Aurten ere, martxan da Euskal Herriko Mus Txapelketa. Herriko kanporaketak jotzen ari dira, final handian parte hartuko duten bikoteak biltzeko. Heldu den igandean, ilbeltzaren 12an, Elizondoko Amezti elkartearen dute hitzordua, 17:00etan.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEONAK
 KANPOSANTUAK
 HARRI LANAK
 ESKULTURAK

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
 Dibortzioak, herentziak,
 alokairuak, alkoholemiak...
T. 948 581 468 | M. 630 354 818
 Santiago, 59 2C **ELIZONDO**

Ohariz Auzoa z/g · LEKAROZ
 T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.
 TALLER DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

KATEA BIKE

Bizikleten salmenta eta konponketa.
 Kanttonberri, 1 | BERA
 T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

Euskal Nobela Beltzaren Astea 20tik 26ra

Ilbeltzaren 13tik 26ra 'Bereterretxeren kanthoria' erakusketa izanen da ikusgai, Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

(H)ilbeltza elkarteak antolatu, Euskal Nobela Beltzaren Astea izanen dute hilaren 20tik 26ra Baztanen. Egunotan, idazleen bisita eta mahai-inguruak, bazkaria, Susmagarrien Gaua, itzuli beltza... izanen dituzte.

Ilbeltzak 20, astelehena

Nobela Beltzaren Asteari Horace McCoy idazlearen *Hobe nuen etxean gelditu* liburuaz solastatuz emanen diote hasiera. Horretarako, Fernando Rey itzultzailearen bisita izanen dute. Iruritako Gure Kaiola elkarteak bilduko dira, 19:00etan.

Ilbeltzak 22, asteazkena

Asteazkenean, ilbeltzaren 22an, *Mirande beltza* solasaldia izanen dute Amaia Elizalderen

eskutik. Anizko elkarteak, 19:00etan dute hitzordua.

Ilbeltzak 24, ortziralea

Begoña del Tesoren eskutik Quentin Tarantinoren mesanotxeko liburuez solastatuko dira ortziralean, 19:00etan, Arizkunenean.

Ilbeltzak 25, larunbata

Larunbatean goiz eta arratsaldean bilduko dira. Elizondon izanen dute lehendabiziko geldialdia, 11:00etan. Jon Alonso, Maribi Elizalde eta Eneko Bidegainen eskutik, *Mundua Iturendik pasatu zenekoaz*

LARUNBATEKO BAZKARIRA JOAN NAHI DUTENEK IZEN EMATEA ZABALIK



Euskal Nobela Beltzaren Astearen aurkezpenean.

solas egingen dute. Ondotik, 14:00etan Erratzuko elkarteak bazkalduko dute. Txartelak erosi nahi dituztenek *ilbeltza-baztanen@gmail.com* helbidera idatzi beharko dute. Bazkalondoan, 16:00etan, liburu aurkezpenen txanda izanen da. Alfontso Gartzian-diak *Itsu kolpeka* eta Josu Barambonesek *Lardaskalana* aurkeztuko dituzte. 18:00etan Susmagarrien Gaua izanen dute Erratzun.

Ilbeltzak 26, igandea

Aste beltza idazleekin Solasean elkarteak iganderako antolatutako bi hitzordurekin borobilduko dute. Goiz erdian, 11:00etan, Amaiurren itzuli

beltza egingen dute eta *Kontrabandisten eleak* izanen dituzte solasgai. Arratsaldean, berriz, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean, *Poesiaren kriminalak* errezitaldiaz gozatuko dute. 19:00etan hasiko da emanaldia.

'Bereterretxeren kanthoria' erakusketa

Euskal Nobela Beltzaren Astearen harira, Begoña Durrutiren *Bereterretxeren kanthoria* erakusketa ikusteko aukera izanen da. Heldu den astelehenean irekiko dituzte ateak eta 26a izanen da bisitatzeko hondarreko eguna. Nahi duenak Arizkunenean, 17:00etatik 20:00etara, bisita dezake.

WWW.ILBELTZA.EUS

(H)ILBELTZA
EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA
BAZTAN
ILBELTZAREN 20TIK 26RA

LANBIDEA

ARGIA

ttipi-ttapa

berria

berria

berria

berria

berria

berria

berria

berria

berria

berria

berria

berria

berria



Joan den urtean jende dezente bildu zen plaza bazterrean. ONDIKOL

San Anton Eguna Elizondon urtarrilaren 17an

Ohi bezala, goizean zopak, eguerdian bertsolarien saioa eta Zahar Etxearen aldeko zozketa izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Ongi errotutako besta eguna da San Anton Eguna baztan-darrentzat. Horren adierazle izanen da, bertze behin, Elizondoko plaza urtarrilaren 17an, hirugarren ortziralean.

Goizean goiz, txistu doinuz ernatuko dira herriar anitz eta, 11:00 aldera, zopak jateko

aukera izanen dute. Eguerdian, 12:00etan, bertsolarien doinuak girotuko ditu bazterrak eta 13:00etan zozketa eginen dute.

Udalak eta Frantzisko Joakin Iriarte zahar-etxeak antolatutako hitzorduaren bueltan, goiz osoan giro ederra izanen dute.



TOTU ITURZAETA

San Silbestre lasterketa jendetsua

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe San Silvestre lasterketa egin zuten Elizondon eta ohikoa denez, parte hartzea handia izan da. Batzuk urte osoan lasterka aritzen direnak, bertzeak lasterkako zapatillak hautsak hartuta zituztenak. Irribarrea aurpegian zutela ailegatu ziren helmugara denak.

Baztan Kantuz egitasmoa urtarriletik aitzinera


TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Baztan Kantuz egitasmoa abiatu dute aurten. Lehendabiziko hitzordua urtarrilaren 19an, hirugarren igandean, egin dute Amaiurren, 12:00etan. Ordu-betez, karrikaz karrika ibiliko

dira, musika lagun dutela kantari. Ondotik, Elizondora pasatuko dute lekukoa. Otsailaren 16an izanen da bigarren geldialdia. Kantatzea gustuko dutenei parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi izan diete: «etor zaitez, zain gaituz!».

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

Hile-topaketa Erratzuko elkartean urtarilaren 17an

Lehendabiziko hiruhilekorako topaketa, inauteriei buruzko solasaldia eta erakusketa eta afaria antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Talde Feministak Feminikas-ten 2.1. jardunaldiak antolatu ditu.

Hile-topaketak

Lehendabiziko hitzordua urtarilaren 17an izanen dute, Erratzuko elkartean. Hilero-koari buruz gehiago ikasteko eta elkarren bizipenak partekatze, Hile-topaketa tailerra izanen dute Enara I. Dominguez-en eskutik (Ziklikoki Bizitzen). Bertan parte hartu nahi dutenek baztangohaizefeminista@gmail.com helbidera idatzi beharko dute.

'Emakumeak eta inauteak'

Otsailean *Emakumeak eta inauteak* izenpean solasaldia eta argazki erakusketa izanen dituzte. Otsailaren 7an, Aitzpea Leizaolak gaiaren inguruko



Aitzineko jardunaldietan. ARTXIBOA

solasaldia eskainiko du eta Gari Garaialdek bere argazki erakusketaren aurkezpen-solasaldia egingen du. Jarduera hau Jo ala Jo Kultur Taldearekin batera antolatu dute.

Bertso afari feminista

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, martxoaren 6an bertso afari feminista antolatu dute Baztango Gaztetxean. Alazne Untxalo eta Saioa Alkai-za ariko dira bertsotan.



N. MORTALENA ETA M. MARITORENA

Eguberri giro betean Arraioz eta Anizen

Arraiozen abenduaren 14an Mari Domingiren bisita izan zuten eta 24an Olentzerorena. Egun berean, aniztarak Olentzero soinean, etxez etxe, janean eta kantuan ibili ziren. 17:00etan hasi zuten etxez etxeko itzulia eta 20:00 artio ibili ziren.



JUAN MARI ONDIKOL

Elizondon karrikak gainezka Olentzero ikusteko

Olentzero eta Mari Domingiren urteroko bisitaz gozatu zuten elizondoar anitzek abenduaren 24an, iluntzean. Dantzek, musikak, kanteak, antortxek, joare hotsek eta haurren algarek arratsaldea magikoa bihurtu zuten. Karrika bete jende bildu zen horrenbertze esperatutako bisita hartzera.

Mozorro tailerrera izen-ematea zabalik hilaren 24a arte

Otsaileko lehendabiziko bi larunbat goizetan izanen dira tailerrak, 10:30etik 12:30era

TTIPI-TTAPA

Eskulanak gustuko izan eta inauteriak bizi dituzten gaztetxoek zaletasunak bateratzeko eta inauterietarako prestatzeko aukera izanen dute otsail hasieran. Izan ere, Kultura Batzodearen eskutik, jertseak, brikak, artilea, zintak... birziklatuz, mozorroak osatzeko tailerra izanen dute.

Amaia Zinkunegik eskainiko du tailerra eta bortsu urte baino gehiagoko haurrek parte hartu ahal izanen dute (guraso baten laguntza beharko dute).

Otsailean bi egunez

Tailerrak otsailaren 1ean eta 8an izanen dira, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean, 10:30etik 12:30era. Ikastaroa eskaini ahal izateko, gutxienez hamar lagunek izena eman beharko dute eta gehienez ere hogeitortu dira.

Izen-ematea eta prezioa

Izen-ematea urtarrilaren 24a arte dago zabalik. Baztanen errolatuta daudenendako, honakoak dira prezioak: bi partaide 19 euro; hiru partaide 27; eta lau 33.



Larunbatean etxez etxe ibiliko dira. MAITANE MARITORENA

Ilbeltzaren 17an eta 18an Anizko inauteriak

MAITANE MARITORENA

Asteburuan Anizko inauteriak izanen dituzte. Ilbeltzaren 17an elkartean egingen duten afariarekin hasiko dute inauteriaroa. Biharamunean berriz ere elkartean elkartuko dira gosalduta eta etxez etxe ibiltzeko. Sonborrotik hasi eta Asgagaineraino, goizetik pusak

biltzen ibiliko dira etxez etxe: ziztor, zingar... Bildutakoarekin afaria izanen dute elkartean. Afarirat etxez etxe ibili direnak ez ezik, gainerako aniztarrak ere joanen dira. Ondotik, dantzaldia izanen dute. Ondoko asteburuan, ilbeltzaren 25ean, aniztarrak Berroetar joanen dira.

'Amico' antzerkia Arizkunetik ilbeltzaren 11n

Arizkun Rockek antolatuta, larunbatean, *Amico* antzezlanak izanen dute frontoian. 18:00etan hasiko da (17:30ean ate irekitzea). Ikusleek hiru euro ordaindu beharko dituzte. Gozatu bitartean Arizkun Rock laguntzeko aukera bikaina dute.

ZaKill taldearen kontzertua urtarrilaren 25ean

ZaKill taldeak atera berri duen *Itzala* diska entzuteko aukera dagoeneko badago Youtuben. Aurrez aurre aditu arte esperatu nahi dutenei ez die luze joko. Izan ere, urtarrilaren 25ean, hondarreko larunbatean, Baztango Gaztetxean izanen dira.

Oliver Laxe film-tailerra eskainiko du Lekarozen

Oliver Laxe zinemagileak *Filmando en Navarra con Oliver Laxe* izeneko sorkuntza zinematografikoko tailerra emanen du ekainaren 4tik 13ra Meliton estudioetan, Lekarozko Enpresa Campusean. Interesatuak info@estudiosmeliton.com helbidera idatzi.

Erratzuko pala txapelketa hastear da

Aurten ere martxan da Erratzuko pala txapelketa. Joan den larunbata, ilbeltzaren 4a, zen izena emateko hondarreko eguna eta bikoteen zozketa egin bezain laster, partidak jokatzen hastekoak ziren. Urtea gorputza astinduz hasiko dute.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak

konfiantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

80.000 ontzi baino gehiago bildu dituzte sei hilabetez

62.011 ontzi bildu dituzte Elizondon eta bertze 18.902 Erratzun

TTIPI-TTAPA

Gobernuak, Hondakinen Prebentzioarako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoaren bitartez, udalarekin batera, plastikozkoak eta latak itzultzeko bi makina jarri zituen apirilean. Makinak Balleko Etxearen gorapean Elizondon eta Erratzuko plazan egon dira, sei bat hilabetez.

Sei hilabete hauetan 80.913 ontzi bildu dituzte, 62.011 Elizondon eta 18.902 Erratzun. Azkoiengo tratamendu-plan-tara eraman dituzte eta denera, 1.800 kilo ontzi jaso dituzte. Ontzi bakoitzaren truke, Bertan elkarteko komertzioetan truka zitezkeen bortz euroko deskontu-txartelak jaso dituzte. Denera, Gobernuak ordaindu dituen 4.830 euro lortu dituzte erabiltzaileek eta tokiko konsumoa sustatu dute.



Haurrek ederki erabili dituzte.

Harrera ona

Harrera ona izan du kanpainak, batez ere haurren artean eta ingurumena zaintzeko kontzientziazioan eta sentsibilizazioan eraginkorra dela uste dute. Esperientzia-piloto honek, ordea, alde txarra ere izan du. Elizondoko makinaren ingurua egunero-egunero garbitu behar izan dute udal langileek, erabiltzaile batzuk egin duten erabilera kaxkarragatik.



UTZITAKOA

Migratzaileen Nazioarteko Eguna

Abenduaren 18an, Migratzaileen Egunean, Baztango Udala bertan bizi diren pertsona migratzaileekin bildu zen. Migrazio prozesuaz eta arazoez aritu ziren. Kezkak eta bizipenak partekatzeak aukera izan zuten. Udalak haiei zuzendutako ekintzak antolatzen segitzeko konpromisoa hartu zuen.



Aroztegia gelditzea aldarrikatu zuten. HAZITIK HOZIE

Aroztegi atarian salaketa eginez akitu dituzte burujabetza jardunaldiak

TTIPI-TTAPA

Lurra sentituz, emakumeok elkarrekin ereiten lelopean, elikadura burujabetza, feminismoa eta lurralde defentsari buruzko foroa izan zuten abenduaren 14an eta 15ean Iruñean eta Elizondon. Aroztegiko kanpoko aldean salaketa eginez akitu zuten jardunaldia.

Berrogeita hamar parte hartzaile hurbildu ziren Baztane-rat; proiektu agroekologikoak ezagutzerat eta luraren defentsan Aroztegiko eta Erdizeko proiektuak zertan diren ikasterat. Baztango hitzordua

ibilaldi gisan antolatu zuten, horrela, Elizondoko plazatik Lekaroz aldera abiatu ziren, Aroztegi aldean ezagutzeko. Ibilbidean geldialdiak egin zituzten, Ana Iriarteren eskutik Baztango Xurie eta Baztango Zaporeak proiektuak ezagutzeko, Amaia Iturririaren baserri agroekologiko proiektua zertan den jakiteko eta Maria Goienetxe eta Miren Meokiren eskutik Erdiz eta Aroztegiko proiektuei buruzko argibideak hartzeko.


Itzuliaren ondotik, Amezti elkartearen bazkaldu zuten, jardunaldiari akabera emanez.



NEREA MORTALENA

Euskal Herriko mus txapelketa Arraiozen

Abenduaren 20an Arraiozko Zubiondo ostatuan Euskal Herriko mus txapelketarako kanporaketa jokatu zuten. Hamaika bikotek hartu zuten parte; irabazleak, Iban Lerga eta Mikel Garbalena suertatu ziren eta bigarren Xabi Mihura eta Edurne Santesteban. Bi bikoteak Iruñerako sailkatu dira.



Airdi lehendakariordea eta Joseba Otondo alkatea.

Baztango alde zaharrak babesteko plana sinatu dute

Nafarroako Gobernuak eta Balleko Etxeak abenduaren 18an sinatu zuten hitzarmena

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak eta Udalak Hiri Jarduerarako Ekin-tza Plan Berezia (HJPE) sus-tatu dute, bailara osatzen duten 29 herrigunetako eremu publikoak eta eraikinak anto-latu eta babesteko eta alde zaharrak nahiz historikoak berritzeko.

Jose M^a Airdi lehendaka-riordeak eta Joseba Otondo alkateak hitzarmena sinatu zuten abenduaren 18an. Hitzarmen horrek bi erakundeak lotzen ditu, hirigune histori-koak birsortzen lagunduko duen oinarritzko hirigintza-tresna elkarrekin egiteko.

Baztango hirigune histori-koak, eraikinak eta hiri paisaiak hirigintzaren aldetik identifi-katu, mugatu eta antolatuko dituen HJPE prestatzeko eta idazteko, 180.000 euroko hasierako aurrekontua dago, eta Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak %80ko dirulaguntza emanen du.

Era berean, hitzarmenak hirigintza proposamenak ga-ratzea aurreikusten du hiri-gune historikoak babestu,

barnetik berritu eta hiria bir-sortzeko, eta eraikin zaharren eta etxebizitza hutsen erabi-lera eta okupazioa sustatzeko.

Baztango HJPEk ekarri duen berrikuntzetako batek zeriku-sia du udal planeamenduan zenbait irizpide sartzearekin, hala nola, klima-aldaketa-ren ondorioak egokitu eta arintzea, edo hirigintza integratzaileko mekanismoak sartzeko espazio publikoen diseinuan, adina-gatik, mendekotasunagatik edo generoagatik biztanleria-ren hainbat sektorek egiten dituzten eskaerei erantzunez.

Era berean, bertz alderti berri batzuk ere sartu dira, hala nol, a uholdeak izateko arriskuari aurrea hartzea –az-ken urteetan Baztan ibaiak izandako ur-goraldiek eragin-dako arazoak direla eta– edo hirigintza-planeamenduaren berrikuspenetan herritarrek parte hartzeko prozesu dina-mikoa irekitzea.

2020. urtetik aitzinera pres-tatuko den planean, Hirigin-tzako Udal Planean jasotako 29 herriguneetako lurzoru guztiak mugatu eta sartuko dituzte.

Aroztegiko ermita Palacio de Arozteguía enpresarena ez dela erran du epaileak

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegiko edo San Martzialeko ermitari buruz auzibidea irekita zegoen, er-mitaren jabetza norena zen argitzeko. Orain gutti, Nafa-roako Auzitegi Nagusiak er-mita Palacio de Arozteguiare-na ez dela ebatzi du, baina erabakiaren kontra Aroztegi-ko proiektuaren sustatzaileak errekurtsioa paratu du.

San Martzialeko ermitaren auzia Aroztegiko proiektuaren bertze korapiloa da. Lekaroz herriak ermitaren jabetza al-darrikatu izan du betidanik, nahiz Aroztegiko Udalez Gain-diko Plan Sektorialean Palacio de Arozteguiarena bezala ager-tu. Modu horretan Aroztegiko eremuaren birziriketa planean Nafarroako Gobernuari erre-kerimendua egitea erabaki zuen Batzar Nagusiak 2017ko urrian, Lekaroz herriaren es-karia gogoan hartuz. Hala ere, Gobernuak, Palacio de Aroz-teguiarekin lerrokatu eta Batzar Nagusiaren errekerimendua ez zuen onartu.

Egoera horretan 2018ko martxoan Udalak Lekaroztik

eskatuta ermitaren jabetza argitzeko ikerketa espediente-a abiatu zuen, baina Palacio de Arozteguiak gaia auzibiderat eramane zuen. EH Bildu, Ez-kerra eta Auzolaneanen alde-ko botoekin udalak auzibidean parte hartzeko erabakia hartu zuen, ondare publikoaren defentsan. Geroa Baik kontra bozkatu zuen eta UPN abste-nitu zen. Auzibidea 2018ko udan hasi zen.

Iazko urrian argitaratutako epaian, epaileak dio ermita enpresarena dela errateko frogaz aski ez dagoela eta ho-rregatik, ermitaren jabetza ez diola Palacio de Arozteguiari aitortzen ahal. Epaia ez du argitzen norena den ermita, baina bai norena ez den. EH Bilduren ustez, ondare publi-koaren defentsa udal haute-tsien funtsezko ardurak da eta horregatik, Geroa Bairen ja-rerra kritikagarria dela aipatu du, «nahiago izan duelako interes pribatuekin lerrokatu». Azaroaren akaberan epaia errekurritu zuen enpresak eta ondoko hilabeteetan gaia behin-betiko argituko da.

'Manifestu bat' antzezlanaren Iruritan ilbeltzaren 19an

TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Batzordea-ren eskutik, helduendako *Manifestu bat* antzezlan-a eskainiko dute ilbeltzaren 19an, igandean, Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. 19:00etan dute hitzordua eta sarrerarik ez da ordaindu beharko (16 urte edo gutiago dituztenek ezin izanen dute sartu).

'Manifestu bat'

Miren Tirapu Goikoetxearen zuzendaritzapean sortutako lan honek pertsonaia bat, isto-



Umorea eta kritika uztatuko dira.

rio bat eta hiru ahots biltzen ditu. Hitzak eta ekinak batera sortuz, umorea eta kritika egi-nen dute antzerkiaren bidez. Bi elementurekin osatutako eszenografiaren bidez, akto-reak arreta bereganatuko du.



Abenduan aurkeztu zuten Donostian. UTZITAKO ARGAZKIA

'Basoko begiak' album ilustratua argitaratu dute

Museoko kudeatzaileak, Ainhoa Agirrek, autoreen eta Lamiñarra argitaletxearen arteko bitartekari lana egin du

MARIFA ETA KORO

Iñaki Sanz biologoak emandako edukinekin, Ainara Azpiazu ilustratzaileak egindako marrazkiekin eta Sorginen Museoaren laguntzarekin, *Basoko begiak* izeneko album ilustratu bat argitaratu dute. Museoko kudeatzaileak, Ainhoa Agirrek, autoreen eta Lamiñarra argitaletxearen arteko bitartekari lana egin du, lana argitaratu ahal izateko.

Basajaun oinarri

Protagonistak Mieltxo izeneko haur bat eta bere aitatxi

dira. Ipuinean, naturarekin dugun harremanaz eta bizitzaren misterioez arituko dira, Basajaun pertsonaia mitologikoa ardatz hartuz.

Sorginen Museoan salgai

Nahiz eta Durangoko azokan salgai egon zen, aurkezpen ofiziala abenduaren 11an egin zuten Donostiako Udal liburutegian. Hemendik aitzinera 14 eurotan erosi ahal izanen da Sorginen Museoan bertan eta zenbait liburu-dendetan. Iruñeko Chundarata eta Sarriquirengo La Valetan, erraterako, salgai daude.

Herriko haur eta gurasoek ilusioz egindako Olentzeroa eraman dute

MARIFA ETA KORO

Maltzurkeria zer punturaino ailegatzten den herriko plazan ikusi dugu. Abenduaren 14an hainbat guraso eta hurrek ilusio haundiz jarritako Olentzeroa, bi egunetara desagertu zen. Etxola, hesia eta apaingarriak bertan utzi zituzten.



Olentzeroren etxola hutsik.



Jubilotekakoen eta hurren topaketa. UTZITAKO ARGAZKIA

Jubilotekakoen kideek eta ikasleek topaketa egin dute

MARIFA ETA KORO

Abenduaren 16an, asteazkenean, topaketa polit bat egin zuten Harremana jubiloteka-ko partaideek eta Leorlaseko eskolako hurrek.

Opari trukea

Hurrek gonbidapen bat eramane zieten, azken eskola egu-

nean egitekoa zuten antzerkia ikustera joan zitezten; eta jubilotekakoen, beraiek egindako postal bat oparitu zieten ikasleei.

Topaketa, hurrek eta adinduek elkarrekin *Olentzero* kanta kantatuz bukatu zuten. Momentu polita bizi izan zuten.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

IBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN

Xahoren biografiaren erakustaldia emanen du Asisko Urmenetak

Lapurdi 1609k antolatuta, "AztiHitza" izeneko emanaldia urtarilaren 10ean izanen da Larraldean

PIERRE BASTRES

Hamaikagarren aldikotz, *AztiHitza* aurkeztuko dute Asisko Urmenetak eta bere arizale eta kantariak. Honetakoan, Senperen iraganen da urtarilaren 10ean, ortziralean 19:00etan hasita, Larraldean hain zuzen. Sartzea urritik izanen da.

Zehaztu behar da *AztiHitza* erakustaldia izan baino lehen komikiren bat dela, Agosti Xahoren (Atharratzeko 1811-Baiona 1858) bizitza kontatzen duena. Hastapenean, argitalerxe baten manua izanik ere, elkarte zonbait eta Xahoren bizitzaz axolatzen ziren jende batzuek txertatu zaizkion agintasmuak, elkar lan bilakatzeraino. Izurako margolariaren erranetan, «ez diat nahi izan Atharratzekoaren bizitza osoa

zehaztea, baizik eta bere bizitzako alderdi baten hautatzea: bere herriz-herriko 1834ko bidaia ezinago komeni iruditzen zitzaidan. Izan nauk Xahoren bizitzaz jakintsu direnen ganat, ikasterat. Ezagunak ez ziren gertakari zonbait ezagun ditiat, eta margotu ere!». Bertzalde, Urmenetak aitortzen du «estetikaren aldetik arras maitatu diat Xahoren garaia, erromantikoa erran nezakek, janzkera eta guzti. Bainan, oroz gainetik argi daukat Atharratzarra izan dela Euskal Herriko heroe nazional handienetako bat. Gure herri honetan nekez onartzen diagu gai garela jenden arteko historia idaztea, eta gure historia argitzen duen Xaho bezalako pertsona handi bat eredutzat edukitzen ahal du-



Asisko Urmenetaren lana ikusgai izanen da ortziralean Larraldean. KLIK KLIK

gula. Jende aintzek gaitzetsi izanagatik ere, haizu zaiguk erraitea "bai, Xaho aitzindari bat izan da, baita erreferentzia ere"».

Izan ere, Asiskok bere sor-kuntza erakutsi nahi luke Xaho gelditu zen herri bakoitzean, bere 1834 ibilaldian, Baionatik Lekunberriraino.

Senperekoan, bortz izanen dira oholtzaren gainean, hiru arizale, musikari bat eta Asisko bera. Oren bat baino gehiagiraunen du, kantuz, antzerki eta mintzaldi aldizkatuko eta nahasiko dituzte.



Emanaldiaren afitxa.

KULTURA

Euskarazko irrati-pieza onenaren saria Maite Bidarterentzat

Donostia Kultura Irratiak antolatutako 'Hamaika Entzuteko!' lehiaketa irabazi du lesakarrak 'Google' irrati-piezarekin

TTIPI-TTAPA LESAKA

Donostia Kultura Irratiak antolatutako *Hamaika Entzuteko!* irrati-piezenlehiaketabosgarren aldiz egin zuten iaz. Maite Bidarte Sota Lesakako kazetariak euskarazko pieza onenaren saria jaso zuen, *Google* lanare-

kin. Epaimahaiak piezaren naturaltasuna eta freskotasuna azpimarratu zituen, baita lo-kuzioa ere, eta «baliabide ego-kiak erabiliz, eta harian lotura politak eginez, autobidaia interresgarria planteatu» izana. Aitziber Iartza Donostia Kul-



Maite Bidarte sariduna.

turako Komunikazioa eta Iru-dia saileko teknikaria, Lourdes Gutierrez Casares Tomasene Kultur Etxeko zuzendaria eta Manex Urruzola Elhuyar Komunikazioa Unitatearen zuzendariak osatu dute epaimahia.

ABELZAINZA

Nafarroako ahuntzak erregistratzeko kanpaina abian

TTIPI-TTAPA

Ahuntzen osasun-egoera hobetzeko helburuarekin, Nafarroako Gobernuak kanpaina berezia abian jarri du ahuntz-buru guztiak erregistratzea, identifikatzea eta haien diagnostikoa egitea lortzearen, haien baldintza onak bermatu eta ahuntzen tuberkulosia desagerrarazte aldera. Nafarroan 13.628 ahuntz daude erregistratuta 613 baserritan.

Hilaren 15era arte eska daiteke Herriko Etxean dirulaguntza

Herriko elkarteek eskaera orriarekin batera, 2019ko kontuak eta 2020ko aitzinkontua aurkeztu beharko dute

TTIPI-TTAPA

Urte berriari begira eta urteko gastuetan laguntzeko asmoz, Herriko Etxeak elkartei bideratutako dirulaguntza deialdia egin du aurten ere.

Interesa dutenek urtarilaren 15a aitzin egin beharko dute eskaera, eta horretarako, He-

rriko Etxean edo honen web orrian (www.mairiedesare.fr) eskura daitekeen eskaera orria beteta aurkeztu beharko da, baita 2019ko kontuak eta 2020rako aurreikusi duten aitzinkontua ageri diren dokumentuak ere, Banku Nor-tasun Agiriarekin batera.

Eguberrietako kontzertu ederra eskaini dute

250 bat lagun bildu ziren abenduaren 22an elizan, Sophie eta Delphine Landibar ahizpen eta Erlauntza abesbatzaren kontzertuaren entzuterako. Aski ongi aritu ziren eta esku-zarta ederrak jaso zituzten. Ondotik, Herriko Etxeak zintzur bustitzea eskaini zien Lur Berri gelan.



Saio ederra eskaini zuten. GANEX



PANTXIKA PATERNE

Olentzero eta Mari Domingi bisitan

Abenduaren 21ean Lur Berri gelan izan ziren Olentzero eta Mari Domingi. Euria ari zenez, lehorrean egin zuten hiru eskoletako haurrekin hitzordua. Olentzerok gozokiak banatu zituen eta haurrek Eguberrietako kanta kantatu zituzten. Merkatarien elkarteak, berriz, krakada ofreitu zuen.

Larhun eremua eraberritzeko egitasmo berria abiatu dute

TTIPI-TTAPA

Mediabaskek jakinarazi duenez, hasmentako proiektua bazterrean utzita, Larhun gunea egokitzeko proiektu berria abiatu dute. Are gehiago, dagoeneko proiektu berriaren prozedura onartu berri dute eta Euskal Elkargoak ere sos-

tengatu du. Trena eta harrera gunea eraberritzeko lanek lehentasuna izanen omen dute. Gainerakoan, tontorrean pasarella gehitzeko eta trenaren gaitasuna handitzeko asmoak bertan behera utzi omen dituzte, baita aparkaleku kopurua emendatzeko asmoa ere.



GANEX

Beti Gaztek 30 urte beteko dituzte aurten

Urte berezia izanen da aurtengoa Beti Gazte elkartearentzat, 30 urte beteko baititu. Hala, hori ospatzeko sorpresaren bat edo berte prestatzeko asmoa dute. Halaxe iragarri zuten abenduaren 7an egindako urteko azken hitzorduan. Elkarteko 60 erretretatu elkartu ziren bazkaltzeko eta aski ongi pasatu zuten.



GANEX

2.000 euro Telethon elkartearen alde

Abenduaren 7an AFM Telethon elkartearen alde bete egin zen Larungo trena. Kaskoan, izigarriko umore onean dantza eta kanta ederrekin gozatzeko aukera izan zuten eta behean krakada goxoa eskaini zuen Jean Jacquesek. Plazako pastiza guztiak ere saldu ziren eta guztira 2.000 euro bildu zituzten.



Paxaka txapelketako lau bikote onenak, antolatzaile, laguntzaile eta sari-emaileekin. JUAN MARI ONDIKOL

Mindegia, Irigoien eta Salaburu garaile Paxaka txapelketan

Abenduaren 21ean Iruritako Aranabian jokaturako finalean 9-5 irabazi zieten Urrutia, Prim eta Iñarreari

TTIPI-TTAPA IRURITA

Baztan-Errekako XX. Paxaka txapelketako finala jokatu zen abenduaren 21ean Iruritako Aranabiapilotalekuan. Arraiozko Mikel Mindegia, Erratzuko Manu Irigoien eta Iruritako Joxe Mari Salaburu suertatu

ziren txapeldun, 9-5 irabazi baitzieten Iruritako Oscar Urrutia, Egoitz Prim eta Miguel Angel Iñarreari (1-0, 1-2, 4-2, 4-3, 5-3, 5-4, 6-4, 6-5 eta 9-5).

Hirugarren posturako norgehiagoka oraindik berdinduagoa izan zen, baina azke-

nean Oizko Ioritz Zelaieta, Ugutz Zelaieta (Aimar Saldiasen ordeztu aritu zen) eta Iker Bereau nagusitu ziren, 9-8, Iruritako Gorka Urtasun, Elizondoko Juan Mari Maia eta Erratzuko Kaiet Itoizen kontra.

Beraz, txapelketako azken partidetan ere, txapelketa osoan izandako berdintasuna izan zuten. Finalen ondotik, sariak banatu zituzten Begoña Goienetxe Iruritako kargodunak, Ugutz Zelaieta Oizko alkateak eta Joxe Itoiz Erratzuko alkateak. Bi hauek paxaka jokalaria ere badira. Ondotik, nola ez, afari batean bildu ziren pilotariak, antolatzailerak eta laguntzaileak.

Nerea Sorondok irabazi du IV. Emakumeen Urrezko Kopa

TTIPI-TTAPA

Azken urteetako ohiturari eutsiz, San Tomas egunean Emakume Aizkolarien Urrezko Koparen laugarren edizioa jokatu zen Donostian. Lau aizkolaria aritu ziren abenduaren 21ean Trinitate Plazan eta 36 ontzako bosna enbor moztu behar zituzten. Nerea Sorondo beratarra izan zen bizkorrena. 10 minutu eta 10 segundo behar izan zituen lana bukatzeko.

Zeanuriko Irati Astondoa izan zen bigarren (11.05), Maika Ariztegi iturendarra hirugarren (11.55) eta Aresoko Ixaso Onsalo laugarren (14.18).



Parte hartu zuten aizkolariek.

Launakako txapel guztiak jantzita hasiko da Beti Gazte zortzinakako txapelketan

TTIPI-TTAPA LESAKA

Euskal Herriko goma gaineko 4x4 sokatira txapelketako azken jardunaldia jokatu zen abenduaren 21ean Artziniegan. Lehengo lepotik burua, Lesakako Beti Gazte irabazi zuen, saioko tiraldi guztiak bereganatu baitzituen (8 puntu). Joxe Angel Mitxelenak, Aitziber Goienetxek, Eneko Saldiasak eta Ainhoa Ubirak osatu zuten Beti Gazteko laukotea, Paskual Taberna erakusle zutela.

Lesakarrekin batera, Ibarra B eta Gaztedi izan ziren podiumean, eta ondotik, Ibarra A,

Berriozar, Bizindar B, Antsoain eta Bizindar A.

Gisa honetara, Euskal Herriko launakako sokatira txapelketako txapel guztiak irabazi ditu Beti Gazte, emakumezkoen bi kategoriak, gizonzkoen bi kategoriak eta mistoa.

Urte berriarekin batera, urtarilaren 11n abiatuko den Euskal Herriko zortzinakako txapelketarako indarra emanen die, baita ondotik, otsailaren 19tik 23ra Irlandako Letterkenny hirian jokatu den Munduko txapelketarako.



Beti Gazteko gizasemeak eta emakumeak lehen txapelekin Elizondon. UTZITAKOA

Urrezko Aizkolaria Kopa

Urtezahar egunean Asteasun jokaturako Urrezko Aizkolaria Kopan ez zen eskualdeko ordezkariarik izan. 2018an bezala, Mikel Larrañaga nagusitu zen, Hulen Alberdi Txikia IV.a

eta Eneko Otañoren aitzinetik. Emakumezkoen Gabonetako ingude altxatze txapelketan, berriz, Maika Ariztegi iturendarra izan zen txapeldunorde, Iruñeko Virginia Finolen gibeletik.



Iruritan eta Elizondon finalak jokatu ondotik, Baztan pilotalekuan egin zuten sari banaketa eta Ladis Galartza profesionala bertan izan zen. JUAN MARI ONDIKOL

Baztango 38. pilota txapelketako txapelak banatuak

Elizondon eta Iruritan jokatuak finalen ondotik, Txarutak antolatutako txapelketako sariak banatu zituen Ladis Galartzak

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Txaruta pilota elkarteak antolatutako Baztango 38. pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten abenduaren 15ean Iruritan eta Elizondon. 300 pilotari baino gehiagok parte hartu dute txapelketan.

Iruritan, **Umeak B** mailan, Ataungo Unax Agirreurreta eta Aitzol Aramendik 18-9 irabazi zieten Arantzako Iker Arotzena eta Ander Etxegarairi.

Kimuak B mailan, Zizurko Oier Goñi eta Aimar Gomezek

18-17 irabazi zieten Leitzako Joanes Olaizola eta Xuban Telletxeari.

Haurrak B mailan, Andoaingo Oihan Lantzeta eta Aimar Seguiolak 18-2 irabazi zieten Ataungo Harriet Etxabe eta Niko Kontrerasi.

Kadete B mailan, Andoaingo Iraitx Goikoetxeak eta Julen Gaztañagak 18-6 irabazi zieten Urretxuko Iraitx Goikoetxea eta Julen Gaztañagari.

Elizondon, **Umeak A** mailan, Esteribarko Sergio Santesteban eta Ander Garciak 18-10 irabazi zieten Andoaingo Amets Cabeza eta Izei Aierberi.

Kimuak A, Ataungo Mikel Altzuak eta Ordiziako Iñigo

Alberdik 18-12 irabazi zieten Alegiako Mattin Elola eta Erren-terriako Aitor Etxeberriari.

Haurrak A mailan, Oiartzungo Oihan Etxeberria eta Mikel Leonetek 18-9 irabazi zieten Oronozko Joel Garaikoetxea eta Hernaniko Aiur Elizazuri.

Kadete A mailan, Irungo Unai Amaino eta Tolosako Martxel Iztuetak 18-14 irabazi zieten Hernaniko Jon Jara eta Lau-dioko Arkaitz Eskuzari.

Gazte mailan, azkenik, Esteribarko Javi Murillo eta Joxe Lazkozek 22-16 irabazi zieten Paz Zigandako Iker Ibarra eta Arai Murillori.

Sari banaketan Ladis Galartza pilotariak parte hartu zuen.

Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA ETXALAR

Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten abenduaren 21ean Etxalarren.

Kimuak A mailan, Lesakako Ainitze Martinezek eta Aimar Otxandorenak 18-14 irabazi zieten Berako Aingeru Etxegarai eta Ander Pagolari.

Tikiak mailan, Etxalarko Erik Igoak eta Unai Irazokik 18-6 irabazi zieten Arantzako Aner Mariezkurrena eta Iker Altzuriri.

Umeak mailan, Berako Xabat Mikelperizenak eta Lesa-

kako Enaitz Bereauk 18-16 irabazi zieten Arantzako Aritz Iparragirre eta Ander Etxegarairi.

Kimuak B mailan, Arantzako Saioa Etxegarai eta Kattin Madariagak 18-17 irabazi zieten Lesakako Ainitze Martinez eta Arantzako Oier Sarriasi.

Haurrak mailan, Etxalarko Lander Lasagak eta Arantzako Ekai Madariagak 18-14 irabazi zieten Legasako Koldo Lakar eta Igantziko Eukeni Etxenikeri.

Kadete mailan, Berako Andde Maritorenak eta Jon Pa-



Goitian parte-hartzaile guztiak eta behegian neskak, Erik Jakarekin. UTZITAKOAK

golak 22-13 irabazi zieten Lesakako Oier Orbegozo eta Gazteluko Joseba Telletxeari.

Finalen ondotik sariak banatu zituzten eta sari-banatzaille lanetan aritu zen Erik Jaka pilotari profesionala.



HITZALDIAK

ETXALAR

Sute elkartearen batzarra

Kultur etxean, urtarrilaren 12an, 10:00etan.

IRURITA

'Hobe nuen etxean gelditu'

Gure Kaiola elkartean, ilbeltzaren 20an, 19:00etan.

ANIZ

'Mirande beltza'

Elkartean, ilbeltzaren 22an, 19:00etan.

ELIZONDO

Quentin Tarantinoren mesanotxeko liburuak

Arizkunenean, ilbeltzaren 24an, 19:00etan.

'Poesiaren kriminalak'

Arizkunenean, ilbeltzaren 26an, 19:00etan.

ERRATZU

Hilerokoa hizpide

Baztango Talde Feministak antolatuta.
Elkartean, ilbeltzaren 17an, 19:00etatik 21:00etara.

'Itsu kolpeka' eta 'Lardaska' liburuen aurkezpena

Elkartean, ilbeltzaren 25ean, 16:00etan.

IKUSKIZUNAK

ARIZKUN

'Amico' antzerkia

Ate irekitzea 17:30ean eta sarrera 3 euro.
Frontoian, ilbeltzaren 11n, 18:00etan.

LESAKA

'Zizelkariak'

Euskal Herriko sei ertzetan hainbat alorretan borrokan ari



ARTXIBOKOA

LESAKA 'Zizelkariak' dokumentala

Arrano elkartean, heldu den igandean, urtarrilaren 12an, 18:00etan hasita.

diren sei gazteri ahotsa ematen dion dokumentala.
Arranon, urtarrilaren 12an, 18:00etan.

ELIZONDO

Bertso-saio literarioa

Dani Martirena, Alazne Untxalo eta Julio Soto.
Elizondon, ilbeltzaren 12an, 19:00etan.

IRURITA

'Manifestu bat' antzerkia

16 urte baino gehiagokoendako.
Gizarte Bilgunean, ilbeltzaren 19an, 19:00etan.

TAILERRAK

GOIZUETA

Oinarrizko informatika ikastaroa

Izen-ematea 948 45 03 09 telefonoan.
Eskolan, urtarrilaren 14tik martxoaren 3ra astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara.

LEITZA

Emakume taldea

Udaletxeko Batzar Aretoan, urtarrilaren 14an, otsailaren 11n, martxoaren 10ean, apirilaren 28an eta maiatzaren 26an, 17:00etatik 19:00etara.

ELIZONDO

Mozorro tailerra

Izen-ematea: ilbeltzaren 24a arte (bi partaide 19 euro; hiru 27 eta lau 33).
Arizkunenean, otsailaren 1ean eta 8an, 10:30etik 12:30era.

KONTZERTUA

AMAIUR

Baztan Kantuz

Plazatik abiatuta karrikaz karrika, urtarrilaren 19an, 12:00etan.

ELIZONDO

Zakill taldea

Baztango Gaztetxean, ilbeltzaren 25ean (ordua zehazteke).

Baztan Kantuz

Plazatik abiatuta, otsailaren 16an, 12:00etan.

ERAKUSKETA

ELIZONDO

Bereterretxeren kanthoria

Arizkunenea Kultur Etxean, ilbeltzaren 13tik 26ra, 17:00etatik 20:00etara.

DANTZAK

ERRATZU

Bailableak

Plazan, ilbeltzaren 12an, 12:30ean.

AZOKAK

BERA

Bertako produktuen azoka

Beralandetan, hilabetero bigarren larunbatean, 10:30etik 13:30era.

OSPAKIZUNAK

BERA

XIII. Mendi Eguna

Urtarrilaren 11n.

ELIZONDO

San Anton Eguna

Bertsolarien saioa eta zozketak izanen dituzte.
Plazan, urtarrilaren 17an, goiz osoan.

ZUBIETA

San Anton Eguna

Meza, luntxa, txokolate beroa eta musika.
Urtarrilaren 17an.

LESAKA

San Anton Eguna

Urtarrilaren 17an eta 19an, ortzegunean eta igandean.



ARTXIBOKOA

INAUTERIAK Aniz, Eratsun, Elgorriaga...

Otorduak, etxez etxeko eskeak, afariak eta anitzez gehiago urtarilaren 17an, 18an eta 19an.

Nafarroako VI. Trikitixa Jaialdia

Sarrerak salgai Zialdon eta Oninart dendan, 12 eurotan.
Harriandoan, urtarilaren 18an, 17:30ean hasita.

INAUTERIAK

ANIZ
Inauteriak

Urtarilaren 17an eta 18an.

ERATSUN
Inauteriak

Urtarilaren 18an.

ELGORRIAGA
Inauteriak

Urtarilaren 17an, 18an eta 19an.

LEITZA
Inauteriak

Ilbeltzaren 24tik 29ra.

SUNBILLA
Inauteriak

Ilbeltzaren 23tik 26ra.

ITUREN
Inauteriak

Urtarilaren 27an.

ZUBIETA
Inauteriak

Urtarilaren 28an.

ARANTZA
Inauteriak

Otsailaren 6tik 8ra.

URROZ
Inauteriak

Otsailaren 8an.

LEHIAKETAK

ELIZONDO
Euskal Herriko XII. mus txapelketako kanporaketa

Amezti elkarteak, urtarilaren 12an, 17:00etan.

LESAKA
Inauterietako kartel lehiaketa

Oinarriak eta xehetasunak: 14. orrialdean.
Urtarilaren 17a arte.

Nire aukera

«Herritarrontzat inauteriak urteko besta politenetakoak dira»

ARITZ ARRIETA

Filosofia ikaslea eta Ozpinduk taldeko bateria-jotzailea da Aritz Arrieta (Elgorriaga, 1998). Astez Donostian bizi da eta ikasle bizitzaren bueltan eraikitzen du egunerokoa: «goizean klasera joaten naiz, arratsaldean, berriz, klaseko lanak egiten ditut edo, bertzela, kanpora ateratzen naiz, lagunekin egon bitartean zerbait hartzeko edo Donostian barrena ibiltzeko». Ortziralea ailegatu orduko etxerako noranzkoa hartzen du. Izan ere, herriak eta inguruko lagunak gozatzeko aukera gehiago eskaintzen diote. Gehienetan, «taldekideekin entseguak egin, nonbait afaldu edo besta egiteko» baliatzen du aste hondarra. Irakurtzea eta musika dira bere zaletasun



nagusiak eta «musikaren alorrean, bereziki, hasiberriak diren taldeak edo ezagutzen ez ditudanak aditzea eta zuzenean ikusteak» egiten du zoriotsu. Zenbaitetan, kontzertuak luze joaten zaizkio, «tokatzen denean besta pixka bat ere egiten dugu eta». Nola ez, herrian bertan denean, ezin izaten du huts egin... Orain, erraterako, inauteriei begira hasia da: «nahiz

eta azken bi urteetan, ikasketak tarteko, ez ditudan behar bezala bizi izan, inauteriak urteko besta politenetakoak izaten dira eta libre hartzen saiatzen naiz». Elgorriagan, gainera, «adin batekoak eta bertzeakoak» biltzen dira, «giro polita» sortuz. Ortziralean, «afaria eta besta» egiten dute, larunbaterako beroketa gisa. Larunbatean, gosaltzera «hala honela» ailegatzen dira. Eguerdira arte «herrian barna» ibili ondotik, bazkarian biltzen dira. Arratsaldean «gai jakin bat oinarri hartuta» mozorroto eta bestan segitzen dute. Indarrik eta gogorik izanez gero, igandea ere «egun polita» da: «mozorro lehiaketa izan ohi da». Egunez egun, musikak ez du hutsik egiten Herriko Ostatuan. Are gehiago, inauteriek «kanten bertsioak sortzeko aukera» ere ematen dietela kontatu digu: «herritarrok letrak aldatu izan ditugu, izaera xeblea emanez». Biharamunerako letrak atzenduko dituzte seguru. Bestak ondorena uztea izaten baita ondorio normalena: «bestondoa sailhestezina izaten da... baina pasatzen da». *Urak dakarrena, urak daroa* dio erranak eta halaxe izaten da Arrietarentzat ere «hurrengoa ailegatzen den arte».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.



LESKA. Etxe eder bat salgai. Eskaintzak onartuko dituzte. ☎609 47 72 77.

ERRENTAN EMATEKO

IRUÑEA. Alde Zaharrean apartamentua errentan emateko. Logela bat, sukaldea, komuna eta egongela. ☎653 73 35 29.

LESKA. Bittiria karrikan pisua errentan emateko, hiru logela, egongela, sukaldea eta komunarekin. ☎639 85 52 84 / 636 11 60 21.



ETXALAR. Larrapil-Sarriku auzoan, etxea errentan emateko. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldea eta garajearekin. Bista ederrak. ☎687 76 69 71 / 672 15 31 96.

BERA. Legia karrikako 1. zenbakian pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta trastelekua dauzka. Argitsua. Gasolio-berogailua. ☎678 36 33 98 / 678 30 52 50.

LESKA. Lagun batentzat logela errentan emateko. ☎678 85 50 56.

ERRENTAN HARTZEKO

DONEZTEBE. Pertsona bat pisu bila. Epe luzerako. ☎600 64 34 60.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESKA. Iturrunzubiko plazan lur azpiko garajea errentan emateko. ☎647 81 01 47.

DONEZTEBE. Obra berriko bi garaje-lokal komertzial errentan emateko. Bat 160m²koa eta bertzea 24m²koa. ☎618 96 28 14

LESKA. Eltzetako plazan, lurpeko aparkalekua errentan emateko. ☎636 84 75 10.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz
sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LESKA. Antoiu ostatua errentan emateko. ☎640 58 02 46 / 640 69 30 83.

ERRENTAN HARTZEKO

LESKA. Furgoneta gordetzeko garaje bila. ☎647 74 15 44.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

OIZ. 10.783,50 m²ko lurra salgai. Errepide ondoan. ☎628 31 60 81.

LANA

ESKANTZAK

ELIZONDO. Bidegain arraindegian langile bat behar dute egun osoz aritzeko. ☎ 948 58 04 96 / 650 39 03 94.

DANTXARINEA. Maspormenos-en lan egiteko jendea behar dute aste-buruetan lan egiteko. Kirol artikulu eta arropa teknikoak saltzen dituzte: goi-mendikoak, lasterketetakoak, kanpoko jardueretarako... Interesatuak bidali curriculum: info@maspormenos.net helbidera. Frantsesa jakitea kontuan hartuko da. ☎687 73 92 40.

LESKA. Iturbena kafetegian zerbitzaria behar dute orduka lan egiteko. ☎620 70 09 64 / 661 84 50 53.

ESKARIAK

BERA. Etxez etxe garbiketan aritzeko lan bila. Orduka aritzeko prest. ☎641 41 95 43.

Neska bat lan bila. Adinekoak zaintzeko edo garbiketan aritzeko prest. ☎674 82 25 83.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,14
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,25
- 1.koa 4,11
- 2.koa 3,97

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 140,00
- Idixkoak 200,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,30/8,90
- 8-10 kilokoak: 7,00/7,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 63 €

Zerri gizena 1,454 €

Zerramak 0,830€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua (azaroaren 22tik 29ra bitarteko prezioak)

Adinduak zaintzen esperientzia duena lan bila. Pertsona langilea. ☎642 83 84 97.

Interna gisa aritzeko lan bila: adinekoak edo haurrak zaintzeko prest. ☎631 12 52 73.

Esperientzia duen gizona lan bila. Eraikuntzan, animaliak zaintzen eta margolari gisa ibilitakoa. Edozein lanetan aritzeko prest. ☎644 54 22 13.

Interna moduan aritzeko lan bila, esperientzia duena. ☎631 12 52 73.

Pertsona adinduak zaintzeko prest dagoena lan bila. Interna edo externa moduan aritzeko, esperientzia duena. ☎651 96 35 55.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



LEITZA. Hilabeteko ardi zakurrak oparitzeko. ☎948 51 02 24.

MOTORRAK

SALGAI



ARANTZA. Ford Focus Sportbreak 1.5 TDCI autoa salgai, 120 zaldikoa, 2017koa, 35.000 km. Berri-berria dago eta ongi ekipatua. ☎ 628 08 81 02 (deitu edo idatzi whatsapppe).



744 484 361

ttipi-ttapa

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT



CLIO BERRIA HEMEN DUGU!

CLIO V ZEN TCE 100 CV - 14.100 euro
Extra guztiek - Sus. finan. lotu.

Salgai ditugun kobxe guztiak gure webgunean ditugu ikusgai: www.kalleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

BERAKO UDALA

PLAN PARTZIALA HASIERA BATEZ ONESTEA

Berako Udaleko Alkateak, azaroaren 13an emandako 314/2019 Ebazpenaren bitartez, erabaki zuen 3. Sektoreko Plan Partziala (7. poligonoko 73., 318. eta 324. partzelak) hasiera batean onestea eta espedientea jendaurrean jartzea hilabete bateko epean, dagokion iragarkia NAOng argitaratu ematen denetik hasita.

Bera, 2019-12-05
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak



2500€



2500€



1000€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com



Izarok eta Josuk ilbeltzaren 14an eta 28an urteak beteko dituzte. Aunitz urtez familia osoaren partetik, bereziki baserriko kuadrillaren partetik.



Narrea Etxeberria Martinek 4 urte bete ditu abenduaren 25ean. Zorionak printzesa! Musu handi bat Irati, aita, ama eta Elizondo eta Elgorriagako familia osoaren partetik.



Doneztebako Iraide Gogortza Etxeberriak 6 urte beteko ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak eta muxu pila amatxoren partetik!



Aresoko Narrea Be-launtzaran Zabalek 12an 9 urte bete ditu. Zorionak printzesa! Segi beti bezain alai. Muxu bat osaba eta izebaren partetik.



Sunbillako Iraide eta Garaine Iriarte Petrirenak eta Ander Petrirena Gorosterrak 19an eta 24an 11 eta 2 urte beteko dituzte. Aunitz urtez eta ongi ospatu zuen urtebetetze egunak. Muxuak familia guztiaren partetik.



Mikek San Sebastian Gaztelumendi lesakarrak 41 urte beteko ditu urtarrilaren 11n. Berriz ere urrun zaudela besarkada bero eta estu bat familia guztiaren partetik. Etxean behar zaituztegu denak.



Berako Ekai Mikelperizena Portuk 6 urte bete ditu abenduaren 20an. Zorionak familia guztiaren partetik!!



Zorionak Alain zure 5. urtebetetzean, urte askotarako. Zorionak belarritik tiratzean eta musu bat zuretzako, Arantza eta Zarautzeko familiaren partetik.



Ander Petrirenak urtarrilaren 24an 2 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki, Ibai, Garaine eta Iraideren partetik. Muxuak bitxito!!!



Aurtizko Naikari Altzuri Mindegia 12an 5 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik.



Aurtizko Joritz Altzuri Mindegia 12an urtea beteko du. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Iraide eta Garaine Iriarte Petrirenak urtarrilaren 19an 11 urte beteko dituzte. Aunitz urtez neskatxak!!! Ongi-ongi ospatu urtebetetze eguna eta afari goxo-goxoa prestatu. Muxuak!!!



Sunbillako Garaine eta Iraide Iriarte Petrirena ahizpek urtarrilaren 19an 11 urte beteko dituzte. Aunitz urtez Berako eta Sunbillako familiaren partetik. Egun eder-ederra pasa dezazuela. Muxuak.



Zigako Itxaso eta Mikel Mendiburu Loiarlek urteak beteko dituzte urtarrilaren 21ean. Segi orain artean bezain maitagarri!

URTEURRENA

**Luis
ELIZEGI URRUTIA**

Lekaroz, 2018ko ilbeltzaren 24an

II. urteurrena

Zure oroimenak
indartzen gaitu,
ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Joxe Angel
ZUBIRIA LEIZA**

Herriari aunitz eman zenion,
eta aunitz zenun emateko oraindik.
Elkarrekin auzolanean segituko dugu,
beti egonen baitzara gurekin Zubiria.

ehbildu



OROIGARRIA

**Joxe Angel
ZUBIRIA LEIZA**

Lesakan, 2019ko abenduaren 25ean

Lagun artean gizon atsegin
seme jatorra etxean
zaldizalea gaztetatik
eguneroko kalean
zure irrifar ahaztezina
herri baten bihotzean
Lesakak badu argi izpi bat
gaur danik oroimenean
zaldi gainean jarrai ezazu
amari gabeko bidean.

ZALDI LAGUNAK

OROIGARRIA

**Joxe Angel
ZUBIRIA LEIZA**

Eguberri eguna ematu da ilun
a ze notizi latza jaso berri dugun
gazte nahiz zaharra izan
guztientzat lagun
mutil maitakorra ta zaldunetan zaldun
bizitzaren borrokan jarraitu dezagun
jakin gabe sekulan
ahaztuko zaitugun.



ARANTZAKO LAGUNAK



BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

OROIGARRIA

**Joxe Angel
ZUBIRIA LEIZA**


Zinegotzi ohia



OROIGARRIA

**Joxe Angel
ZUBIRIA LEIZA**

Boneta berde, zapi loredun
zenbat egun ta gaupasa
Zure terreno maitenean
emanik azken arnasa
Ez dugu aisa aurkituko nork
dantzatu hain ongi erratza.



IRACHE
tanatorioak
Betidanik

BERA (Kanttonberri, 14) | **DONEZTEBE** (Ameztia, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | **LESAKA** (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruongo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70

SORTZEAK

- **Amets Elizaga Mariezkurrena**, Donamariakoa, azaroaren 11n.
- **Xuhare Arretxea Mitxelena**, Nartartekoa, azaroaren 20an.
- **Julia Caltelan**, Sarakoa, azaroaren 21ean.
- **Aiur Aristu Uzkiaga**, Legasakoa, azaroaren 29an.
- **Leiane Labeguerie**, Sarakoa, azaroaren 30ean.
- **Maddi Mindegia Goñi**, Aurtizkoa, abenduaren 14an.
- **Aritz Elizegi Lucet**, Goizuetakoa, abenduaren 20an.
- **Sabina Sarasua Cano**, Etxalarkoa, abenduaren 21ean.

EZKONTZAK

- **Aratz Erregerena Altzu** eta **Arrate Leizeaga Unsain**, Iturengoa eta Zubietakoa, abenduaren 14an, Zubietan.


HERIOTZAK

- **Jesus Eskudero Linazasoro**, Berakoa, abenduaren 4an, 84 urte zituela.
- **Maximo Goia Zozia**, Alkaiagakoa, abenduaren 9an, 89 urte zituela.
- **Ignacio Errandonea Altzuguren**, Berakoa, abenduaren 9an, 73 urte zituela.
- **Perpetua Arburua Iturria**, Etxalarkoa, abenduaren 11n, 92 urte zituela.
- **Patxi Barriola Zabaleta**, Leitzakoa, abenduaren 12an, 89 urte zituela.
- **Jesus M^a Zabaleta Ganbarte**, Lesakakoa, abenduaren 14an, 75 urte zituela.
- **Margarita Castiella Zalba**, Leitzakoa, abenduaren 19an, 92 urte zituela.
- **Monika Telletxea Telletxea**, Ezkurrakoa, abenduaren 21ean, 89 urte zituela.
- **Miguel Zabaleta Azpiroz**, Leitzakoa, abenduaren 24an, 79 urte zituela.
- **Julia Camino Etxenike**, Zugarramurdikoa, abenduaren 24an, 85 urte zituela.
- **Tomas Alkoz Arregi**, Leitzakoa, abenduaren 25ean, 77 urte zituela.
- **Pedro Etxeberria Irigoien**, Urdazubikoa, abenduaren 26an, 65 urte zituela.
- **Juliana Jimenez Elizalde**, Amaiurkoa, abenduaren 28an, 85 urte zituela.
- **Zeilia Garaialde Lakuntza**, Elizondokoa, abenduaren 29an, 93 urte zituela.
- **Salvador Etxeberria Agerre**, Arraiozkoa, abenduaren 31n, 74 urte zituela.
- **Juan Jose Gastearena Mariezkurrena**, Ezkurrakoa, abenduaren 31n.
- **Luis Retegi Petrikorena**, Eratsungoa, urtarrilaren 1ean, 79 urte zituela.

KONTATU KONTUAK



Eskualdeko sei ikastetxe publikok kalitate-saria jaso dute. Arantzako, Berako, Elizondoko eta Lesakako eskolek kalitate-zentroa zigilua jaso dute; Berako institutuak eta Doneztebeko San Migel eskolak, berriz, zentro bikainarena.



Erabakitze eskubidea aldarrikatuz, Larun argiztatua. Kopeta-argi edo esku-argi indartsuekin joateko deia erantzunez, jendetza elkartu zen abenduaren 7an Larungo kaskoan erabakitze eskubidea aldarrikatzeko.



Txileko emakumeei elkartasuna adieraziz. Baztan-Bidasoko feministek *Un violador en tu camino* performancea egin zuten abenduaren 8an Beran. Txileko emakumeei elkartasuna adierazi nahi izan zieten euren kanta euskaraz kantatuz.



Muxikoak ikasteko gogotsu. Eguberrietako oporren ondotik, argazkiko kuadrilla prest da berriz ere muxikoak ikasten segitzeko. Mikel Iturria beratarra irakasle dutela, irailean hasi ziren asteartero 60 bat lagun biltzen. Abenduaren 17an, hiru hilekoa borobiltzeko, meriendatzeko bildu ziren. Aste honetan hasi dira astearteroko hitzorduarekin eta hurrengoa urtarrilaren 14an izanen dute.



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan

Hurbiltasuna eta begirunea

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELLOZIRI



HANDITIK TXIKIRA



Ordenatu itzazu hostook, handitik txikira.
Jarri hosto bakoitzaren alboko biribilean ordenari dagokion zenbakia.

MEZUA

Erabil ezazu honoko alfabetoa Olentzerok zer dioen jakiteko.
Iruditxo bakoitzaren azpiko laukian dagokion letra jarri
eta hitzak osatuko dituzu.



--	--	--	--	--	--	--	--



--	--	--	--	--	--



--	--	--	--	--	--	--	--



--	--	--	--	--	--	--



--	--	--



--	--	--

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

HAMALAU!

Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak.
Hamalau dira guztira.

EZ DUT
ESKOLARA
JOAN NAHI!



EZ NAIZ
ESKOLARA
JOANGO!



Ttapi Txartela

arekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

748

aleko
irabazleak >



1. lotea

Pili Oteiza Bikondoa | IRURITA

2. lotea

Lourdes Mendikoa Etxenike | BEINTZA-LABAIEN

3. lotea

Antton Dagerre Endara | BERA

ZOZKETAK

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

Eguzkilore bat



OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

LIBURUA DISKA DVD



- Galtzagorriek to, Inaxito!
- Gu ta gutarrak
- Buruz buru

Lanku

www.lanku.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.ttarttalo.eus



www.eurekamuseoa.es